

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria • 2018ko urtarrilaren 26a • 391. zenbakia



Puntako produkzio lanean

Gureak enpresak Zarautzen duen fabrikari, Orioko eta Aiako 25 lagunek egiten dute lan. Gertutik aztertu dugu beren eguneroko produkzioa.

11

Akuilua hartuta
Olatz Artola

16

Elkarrizketa
Mikel Lertxundi

20

Argazkiak
Danborrada

34

Udalaren txokoa
Erregeen Kabalgata

.....
"Bertso handi bat,
bota nahi nuke..."
.....

EMAN INDARRA ZURE SEME-ALABEI

Matrikula epea: Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra
Bilera informatiboa eskolan (elebiduna): Urtarrilak 25 (18:00etan)
Eskola zabalik: Urtarrilak 27 (10:30etatik 12:30etara)
Tel. 943 89 40 52 E-posta: 042137aa@hezkuntza.net



Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua
Miriam Garcia

Erredakzio taldea
Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Iñigo Expositio
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Maria Maya
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea
Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak
Iñaki Arostegi
Olatz Artola
Antonio Campos
Eli Huegun
Iñaki Iturain
Jabier Zabaleta

Diseinua
Saioa Perona

Banatzaileak
Miriam Garcia,
Ander Garcia (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Iñaki Arostegiri jarri dio puntua Jon Agirresarobek: *Traineru jaitsiera urteko lehen zita*. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

IÑAKI AROSTEGI (DOINUA: BALEAREN BERTSOAK)

1
Traineru jaitsiera urteko le(he)n zita
estropu hotsak dira aspaldi hasita izango dugu hainbat aurkarin bisita ezin ukatu dela erronka polita!

2
Mapil eta Saikola abiapuntuak Ori aibaian behera doaz traineruak oihuka ta txaloka daude zaletuak Nork irabaziko du? Egin apustuak!



JOXEJU OLASAGASTI

Hurreng bertsolaria:

Bittor Andres

Puntua:

Mendizaletasunik ba al da herrian?



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bertsio gaua

Abenduak 29, gau giro zoragarria. Etxeluze gaztetxearen inguruan gazte, ez hain gazte, barreak, urduritasuna, laguntasuna... Barrura sartu eta jo, ederki jarri dute gero, a ze aldaketa! Egurrezko teilatu dotorea, harrizko pareta indarberrituak, barra koxkor txukuna, eta oholtza! Askok hara begiratu eta bertsio gauean jotzera apuntatu zireneko damua, *hor jo behar dugula?* galdetzen zutenak.

Batzuk txikitatik musika tresnaren bat jotzea zer den dakitenak, besteak musika entzun eta sentitu arren, lehenengo aldiz jotzera edo abestera animatu zirenak, besteak lagunak esan eta *bueno, beregatik egingo dut* pentsatu zutenak. Denak oholtzan.

Plazer bat izan zen gau hartan hantazate eta herrian musika zaletasun handia dagoela ikustea, bai helduen artean, baita gazteengan ere, bakoitzak bere mailan eta estiloan. Berriz ere ikusi da musika den hizkuntza unibertsal honek dituen gaitasunak: elkartasuna, errespetua, adin mugarik eza, sentimendu adierazpena, kultur aniztasuna, sexuen arteko berdintasuna...

Bejondeizuela eta musikak elkar-tzen jarrai gaitzala! • **Amaia Gutierrez Esnal**

Gabonetako ekintzen balorazioa

Gabonak pasa dira eta urte berria hasi dugu.

Aurten ere oriotarrok Gabonak gozatzeko aukera izan dugu herriko eragileek antolatutako ekitaldiekin.

Musika eskolak eta Salatxo abesbatzak Gabonetako kontzertu ederrarekin berriro erakutsi digute Orion dugun musika maila ona.

Olentzero eta Mariren etorreraren ikuskizun eder batekin, Gabon Gau eder bati hasiera eman genion Lera taldearen lan onari esker; beraz, es-

kerrik asko zuei, eta gure animoak. Beti bezala, Udalaren laguntza izan-go duzue orain arte bezala.

Erregeen kabalgatari esker aurten ere oriotarrok erregeak ikusteko aukera izan dugu. Egun honen antolaketaren arduradun nagusi orain arte Talai Mendi elkarteak izan dugu; lan bikaina egin dute urte hauetan guztietan. Eskerrik asko Talai Mendi elkarteari.

Hemendik aurrera beste batzuk jarraitu beharko dugu lanean, Udalaren babesarekin. Baina ziur nago lan talde on bat sortzeko gai izango garela, beste askotan ere lortu dugulako oriotarrok bat egitea herriko ohiturei eusteko.

Kultura Batzordetik eskerrik asko eta Urte Berri on denoi. • **Lourdes Salsamendi**. Kultura eta Turismo zinegotzia

Ikastolatik eskerrak

Tartetxo hau hartu nahiko genuke, abenduaren 24an Elkartasun Tonbola martxan izatea posible egin zuten horientzat guztientzat. Aurtengoan ere, beste behin, jende andana izan da DBH 4. mailako ikasleoi laguntzeko prest agertu dena: opariak eman dizkiguten merkatari eta ostalariak, Udala eta egunean bertan boletoak erosten gastua egin zuten herritarrak. Eskerrak eman nahi dizkiegu, oraindik ere badelako gurean, emateko badagoenik, esku-zabala denik: mila-mila esker!

Jakin ezazue 4274 Euro lortu ditugula guztira ekimen honekin, eta urtero bezala erdia Rwandara biderratu dugu eta beste erdia Ikasketak Bidaia gure gastuak kitatzeko moldatuko dugula. Urte ona izan dezazuela! • **Orioko Herri Ikastolako DBH4ko ikasleak**

Eskerrik asko Talai Mendi

Kaixo oriotarrok. Orain dela egun batzuk herri honetatik pasa ginen. Gogoratuko zarete. Ongi etorri be-

rezia eta oso polita egin zeniguten danborradaz, txaranga eta guzti. Urtero garai hauetan pasatzen gara hemendik eta harrera oso polita eta ahaztu ezina egiten diguzue.

Egin beharrekoak eta gero, beste herrietara joan ginen, baina gure belarrietara berri bat ailegatu zitzaigun: orain arte eta hainbeste urtetan gure harrera antolatu digun Talai Mendi elkarteak lan honen ardura bertan behera uztea erabaki duela. Honi buruz, guri eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Txapela kentzekoa da. Beno, gure kasuan, daramagun koroia kenduko dugu. Badakigu lan gogorra hartu duzuela zuen gain urte asko eta askotan dena antolatzen: ume guztien prestaketa, danborrada, txaranga, laguntzaileak –hauek ere bere lan bikainarekin–, jende guztien koordinazioa eta abar.

Hirurok, etxean bezala sentitu gara urte hauetan guztietan zuek antolatutakoari esker.

Gure partez barne barnetik mila esker. Ez zaituztegu sekula ahaztuko.

Hemendik aurrera, urte hauetan zuek egindako lan honen ardura beste norbaitek hartuko duen esperantzarekin agurtzen gara.

Eskerrik asko denoi, benetan, eta datorren urtean ere hemen izango gaituzue! • **Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak**

Lehen, bigarren edo hirugarren mailako idazkaritza

Pertsonen eta erakundearen asmatan egoten da ahalik eta maila gorenean kokatzea eta nahi izaten dute dagoen maila aitortzea. Horretarako daude eginda mailak eta sailkapenak, bakoitzak dituen ahalbideak kontuan izanda, bere neurrikoekin egoteko eta, lehiak edo eskubideak tartean baldin badaude, horietan berdintasunean jokatzeko.

Toki Administrazioako gaikuntza

nazionalako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuko 2. artikuluko b) atalean ezarrita daude 2. mailako Idazkaritza izateko Udalek duten baldintzak: 5.001etik 20.000rako biztanleria izatea edo 5.001 biztanle ez izanda gutxienez 3.000.000 euroko aurrekontua izatea.

Futbolaren erreinu zabaletik adibidea hartuta, ez da berdina 1., 2. edo 3. mailan jokatzeko. Maila bakoitzean jokatzeko betebeharrak dituzu, lana eginda hartutako merituekin saria daukazu eta neurria eman behar da daukazun mailari eusteko.

Oriok 3. mailako Idazkaritza dauka. Hamarkada bat pasatu da Orioko biztanleria 5.000 biztanletik gorako dela eta aurrekontuetako diru kopuruaren muga hamarkada batzuk dira gainditua duela.

Orain taldeak duen informazioaren arabera, Orioko Udalean Idazkaritza 3. mailakoa da. Hori da ez duguna ulertzen eta ezjakintasunean galdetzen dugu, eta jakin nahi dugu, zergatik ez daukan 2. mailako Idazkaritza eta horrek dakarren 2. mailako kontu-hartzailatza. • **Orioko Aukera INdependentea**

Aian saiatzen dira

2016ko Otsailaren 10era arte Aiako Lardizabal Herri Eskola, Aiako Udala eta UKUE-ren artean, Aian auzo-konposta egiteko zerrendan apuntatzeko aukera ireki zuten. Aiako etxebizitza guztietara bidali zuten orri informatiboa irakurri eta izena eman nuen. Herriko igerileku eta aparkalekuaren artean konposta egiteko lekua ipinita zegoen. Hila-beteak igaro eta erantzunik jaso ez nuenez, Udaletxera joan eta esan zidaten UKUE-n zuten bilera batean nire kasua aipatuko zutela. Berrero, hilabeteak igaro eta erantzunik ez. Horregatik, 2017ko martxoan eta azaroan, idatzizko bi eskaera formal erregistratzen joan behar izan nuen

Aiako udaletxera, eta hauetan ere erantzunik ez. Azkenik, Arartekoari zuzendu behar izan natzaio, honek Aiako Udala nirekin kontaktuan jarri arazteko. Honekin behartuta ikusita, 2017ko abenduaren 4an Aiako alkatea nirekin telefonoz kontaktuan jarri zen, ia bi urteren ondoren! Nire eskaeraren berri ba omen zuten, baina, zer erantzun ez zekitelako, ez omen didate abisatu. Erantzun borobila! Hori egia bada, zergatik ez zidaten abisatu lehenago? Axola al dio, herritar batzuk erantzunik eman gabe ia bi urtez zain edukitzea? Zein da, erantzuna ezin ematearen motiboa? Gerora jakin dut, kasualitatez, gutxienez Aiako bi familiak eman genuela izena. Zergatik beste familia horrengana ere ez da zuzendu Alkatea? Zenbatek izena eman genuen aztertzen ere ez da arduratu, jakin dudanez. Zenbatek eman genuen izena? Bestetik, Aiako Udalean erregistratutako eskaerek erantzuna izan dezaten bermatzen duen protokolorik betetzen al da?

Saiatzen omen dira, esan zidan alkateak. • **Aritz Arruti**

Aiako udal aurrekontuak

Abenduak 17ko plenoan, besteak beste, 2018 ekitaldirako aurrekontuak onartu ziren Aiako udalean, EH Bildu taldearen aurkako botoarekin.

Aiako EH Bilduren irakurketa hau da:

Batetik, aurreko urteko –2017– aurrekontuei, konfiantza erakutsiz, babesa ematetik gentozen. Baina, ikusi dugu, besteak beste, orduan konprometitutako aurrekontu haietatik 2018ra heltzear, gauzatu gabe geratu direla hainbat proiektu. Besteak beste, Aiako EH Bilduk Udal gobernuari proposatutako igerilekuaren irisgarritasuna hobetzea eta Urdanetako aparkalekua onartu ziren, baina, Udal Gobernuak ez du beharrezko konpromisorik erakutsi aurrera eramateko. Herritarrengandik jasotako eskaera hauek albo batera utzi ditu.

2018ari begira, Aiako EH Bilduk Udal gobernuari egindako proposamenak hauek izan dira:

1-Aian ditugun etxe hutsen detekzioa egiten hasteko urratsak ematea, Aian gazteek etxebizitza bat lortzeko izan dezaketen arazoa konpontzen saiatzen haste aldera.

2- Irisgarritasunaren arloan: Argutze eta estanko artean oinezkoak segurtasunez pasatzeko igarobidea, demaplazako kanpoko atetik frontoira mugikortasun murriztuko edozeinek pasatzeko bide egokitua, igerilekua... Azken urteetan irisgarritasunaren inguruan hobekuntzak egiteko beharra azpimarratzen ari gara EH Bildutik eta ikusten dugu Udal Gobernuaren partetik ez direla nahikoa pausu ematen.

3- Urdanetako aparkalekua 2017ko aurrekontuetan onartu ondoren, berriro eraman dugu proposamena baina EAJk ez du inolako konpromisorik erakutsi proiektu horren aurrean.

4- Lardizabal eraikin zaharrak: Lardizabal berriaren eraikuntzaren ondoren, eraikin zaharretan libre geratutako espazioa esanguratsua da eta herriak probetxu handia atera diezaiokete espazio horri. EH Bilduren ustez, herritarren artean hausnartu beharreko gaia da eta, horregatik, gure apustua izan da Udalak eztabaida horren ekimena abiatzea 2018an, herritarren arteko eztabaida bat eman zedin eta erabaki genezan denon artean zer egin nahi dugun leku guzti horrekin. Nekane Arrizabalaga alkateak hasieratik *ez zuela ikusten* erantzun zigun eta EAJk ez dio baiezkorik eman.

Hau guztia dela eta EH Bilduk 2018ko aurrekontuei ezezko botoa eman die. • **Aiako EH Bildu**

Lotsa

Euskaltzaindiaren arabera lotsa hitzak, beste zenbaiten artean, honako adiera du: egin den hutsak, hartu den irainak, edota zenbait pertsona-

ren aurrean egoteak sortzen duen sentipen ezatsegina.

Sentipen ezatsegin hori Udale-
txeak egindako hutsak sortarazi dit
niri.

Ez dut, normalean, Whatsapp
bidez iristen zaizkidan bideoak
irekitzeko joerarik. Baina bazuen
honek zerbait berezia: lankideon
arteko taldetik zetorren eta jatorria
non ote zuen galdetzen zuen norbai-
tek, barre-algaraka dagoen aurpegi
batekin bukatuz. Horrek atentzioa
deitu zidan eta *ttak!* ireki egin behar
azkenean.

Bideoa herriari buruzkoa zen. Edo
zehatzago esanda, Oria ibaian aspal-
di jokatu ziren aulki mugikorreko
estropada internazionaleri buruz-
koak –herri honetan arraun egin
eta bisigua jan besterik ez baitugu
egiten...– Hasiara batean pentsatu
nuen *hara! Hona hemen ordenagailu
bat eta denbora non pasatu ez dakien
norbaitek egin duen txapuzita bat.*
Eta bere horretan utzi nuen.

Baina kuriositatea martxan nuen
jada eta hariari tiraka hasi nintzen
iturburura iristeko asmoz.

*Ez da norbaitek etxean denbo-
ra-pasa eginiko zerbait. Udalak
FITURerako enkargatu duen bideo
bat da esan zidaten halako batean...*

Pasatu dira hiruzpalau egun or-
dutik hona eta oraindik ere sinistu
ezinik nago nola Udaletxe batek

eraman dezakeen hain maila eta ka-
litate exkaxeko promozio bideo bat
FITUR bezalako erakusleihen bate-
tara! Nazio mailako ekitaldi batean
egon behar badugu –eta egon behar
dugu!– gauzak seriotasun eta pro-
fesionaltasunez landu behar dira.
Hori, jaun-andreok, ez da lortzen
kostuak kalitatearen aurretik jarritz.

Ikus-entzunezkoen arloan dara-
matzadan ia hogeit urteotan ikasi dut
enpresa bat, mugikor bat, ikastetxe
bat, ibai bat, herri bat... jendearen
aurrean promozionatzeko eta bere
balioa agerian jartzeko, xehetasunik
txikiena ere zaindu beharra dagoela.
Itxura ona eman behar dela. Mezu
zuzen eta indartsua luzatu behar
zaiola hartzaileari. Eta, baita ere,
ikasi dut hori ezin duela edozeinek
egin.

Ez pentsa kamera bat eta ordena-
gailu bat izateagatik edozeinek egin
dezakeela bideo –on– bat. Edota
saretik ateratako NO-DO zati bat
eta jakin nondik atera diren Dron
irudi batzuk elkarren ondoan jar-
tzeak bideogintzaren profesional
bat bihurtzen duenik bat –eta ez
naiz sartuko Irudi horien baimendu
gabeko erabilerak ekar ditzakeen
ondorioetan...–.

Hori baino askoz konplexuagoa
den zerbait da, dedikazio eta sen-
tsibilitate maila handia eskatzen
duena.

Arren, ez nazazue gaizki ulertu:
lerro hauek ez dira bideo hori egin
duenaren kontra, ezta gutxiagorik
ere, errua ez baita berea, zuena bai-
zik Udaleko jaun-andreok. Zuena
bai, exijentzi maila handiago bat ez
izateagatik.

Benetan uste baduzue horrela
egiten direla gauzak *apaga y vámo-
nos*. Hain erakusleihen garrantzitsu
batetara joango zinetela jakinda zer-
gatik ez dituzue hontara diharduten
profesionalen ateak jo? Herri honek,
zorionez, baditu hainbat aktiboan
–beste mordoxka bat bidean datoze-
nak–. Eta herritik ez oso urrun ere
badituzue aukerak. Ezazue biderik
merkeena hartu horregatik bakarrik:
merkeena delako. Gure sektoreari
balioa eta sinesgarritasuna kentzen
dionue, hutsaren pare tratatzen gai-
tuzue. Iraindu egiten gaituzue pen-
tsatzeko era horrekin.

Ni behintzat horrela sentitzen
naiz: herritar gisa LOTSATUA. Eta
profesional gisa IRAINDUA.

Utz iezazue zuen zilborrei begi-
ratzeari eta pentsatu harago!

Hemen uzten dizuet esteka bat
gauzak nola egiten diren kontu-
ratu zaitezten: [https://youtu.be/
m3AAicNduxo](https://youtu.be/m3AAicNduxo)

Eskermila zuen denboragatik.

• **Profesional iraindu bat, herritar lotsatu
bat**

■ HILDAKOAK

- Maria Gonzalez de Txabarri Peña, Orion, urtarrilaren 18an. 91 urte.
- Manuela Treku Arsuaga, Orion, urtar-
rilaren 16an. 75 urte.
- Pepita Carrera Goikoetxea, Orion,
urtarrilaren 15ean. 90 urte.
- Pepita Azpeitia Mugika, Aian, urtarri-
laren 15ean. 81 urte.
- Jose Ignazio San Sebastian Arruti,
Orion, urtarrilaren 12an. 74 urte.
- Eusebio Arregi Illaramendi, Aian,
urtarrilaren 11n. 84 urte.
- M^a Antonia Aranalde Aiestaran,
Orion, urtarrilaren 11n. 94 urte.

■ JAIOTAKOAK

- Xanti Azkue Portalo, Orion, urtarrila-
ren 20an.
- Aray Cortes Perez, Orion, abenduaren
31n.

■ EZKONDUTAKOAK

- Ez da erregistratutako ezkontzarik
izan.



Giro polita sortu zen dokumentalaren emanaldian. J. ZABALETA

Lumera pilatzeko garaia



Erregeen kabalgata Aian. KARKARA

Koadrila polita joan zen Elkarrekin-Together dokumentala ikustera Kultur etxera. Kanadan ez ezik, AEBtan ere euskaldunak balea arrantzan ibili ote ziren jakin nahian egindako espedizio baten kronika da dokumentalaren oinarria, han ere gure asaba zaharrak balea arrantzan ibili zirenen zantzuak baitzituzten. Dokumentalaz harago, eta ikusi nahi dutenei *spoiler* lanak egin gabe, ondorengo txarla interesgarria izan zela aipatu digute joan ziren herritarrek. Zer egiteko gai gara elkarrekin? Horratx, Iñaki Goirizelaia hizlariak, EHUko errektore ohiak, entzule artera bota zuen galdera, Batzen proiektuaren izenean.

Eta euskaldun asko elkartu ziren, ilbeltzaren bigarren larunbarekin ohi denez, presoan aldeko Bilboko manifestazioan. Bezperan jakin genuen Frantziako gobernuak presoak Euskal Herrira gerturatzeko duen asmoa. Eta aste bete geroago Patxi Urangaren eta Olatz Lasagabasterren alabak, Xuak, bete zuen urtebete Valentziako kartzelan. Zorionak!

Danborradarekin bateratsu etorri ziren neguko olaturik handienak. Olatutzarrek barra berria alderik alde nola pasatzen zuten ikusi ahal izan genuen, behin baino gehiagotan. Elurra ere bai, Aia aldean lodi, eta Orio aldean elur bustia tarteka. Gainontzean euria barra-barra azkenaldian, etxeko giroan goxo egongo ginen gehientsuenok. Gorputza eta gogoia betetzeko sasoi ezin hobea da negua, liburuak irakurri, bertsoak entzun edo pelikula ikusteko garai ezin hobea.

Eta bien bitartean, anguleroak erotuta dabilta nonbait. Ez da erraza jakiten baina bada angula soinua bazterretan. Ur izkinatik ez horrenbeste, baina enbarkazioetatik kiloak harrapatzen ari omen dira. Saldu ezinaren ondorioz igual, izango da etxean jan dituenik ere. Besteok, legatza edo arrain-haztegiatiko erreboiloa janda konformatu behar izan dugu Gabonetan. Hori bai bere lumera eta guzti, koipea pilatu beharra dago eta negu gogor honi aurre egiteko.



Abisu laranja izan zen kostaldean aurreko astean. KARKARA

Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratza, errioa eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela ez egin biak batera.

“Bezzeroaren ohiturak aldatu dira eta ostalaritza ere bai”

Julen Bueno Sanchez
Presa Iberikoa Mojo Picon saltsarekin

Osagaiak

Bost xerra *presa iberikoa*.

Oliba olioia.

Ozpina.

Ogi txigortua.

Hiru baratxuri ale.

Hiru pipermorro gorri.

Piperbeltz ehotua.

Piperrauts gozoa.

Piperrauts mina.

Pipermina.

Kumino pixka bat.

Gatza.

Edaria

Ona bada edozein ardo beltz.

Nola egin?

Saltsa prestatuko dugu lehenbizi. Osagaiak gustuen arabera erabili behar ditugu, zapore minak eta ezohikoak bereziki neurtuz. Elementu guztiak txikituta botako ditugu ontzira: hiru pipermorro gorri, hiru baratxuri ale, pipermina ale bat, piperbeltz ehotua, piperrautsak, kuminoa eta gatza. Oliba olioia eta ozpina gehituko diogu: olioia ozpinaren bikoitza, aukeran beti ere. Osagai guztiak mazeratzen uzten ditugun bitartean ogia xerratan moztu eta plantxan txigortuko dugu. Saltsa loditzeko baliatuko dugu ogia: osagaiei nahastuko diegu eta txinotik pasako dugu dena. Litro erdi saltsa sortuko dugu, gutxi- gorabehera.

Haragia plantxan egingo dugu. Solomo gisako zatiak egingo ditugu, finak. Baina, aurretik komeni haragiari gantza kentzea. Plantxak indarra baldin badu laster egingo da haragia, buelta eta buelta, norberak aurkitu behar dio puntua.

JON AGIRRESAROBÉ

Otsailaren hogeian bi urte beteko dira Julenek eta bere emazte Paloma Tamayo Marinek *Baraka* zabaldu zutela. Julen zarauztarra da jaiotzez, 1991. urtean hasi zen herrira etortzen eta azken hogeitertan Orion bizi da. Mugimendu handia dago tabernan, lanean ari da, baina hitz eta lan egin biak batera egiteko gaitasuna du. Gizon txikiak gauzak handiak kontatu dizkigu. Nahiko lan izan dugu sukalde terminoak gaztelaniatik itzultzen.

Elaborazio pixka bat badu aurkeztu diguzun saltsak.

Kanariar Uharteetan ohiko saltsa da, bertakoa, *papas arrugadas* edo azala zimurtzen zaien patata txikiekin zerbitzatzen da saltsa hau. Markos sukaldariak egiten du gurean. Txerri iberikoaren haragia samurra gelditzen da, *sekreto*, *pluma* edo *presa* izan daiteke, hirurak eskaini

izan ditugu *Barakan*. Haragi zatiok azken urteetan geroz eta gehiago erabiltzen dira, urtsuak eta zaporetsuak dira gihar artean gantz dezente dutelako. Orain *presa* ari gara eskaintzen: txerri bakoitzak kilo erdi inguruko bi zati izaten ditu, paletaren ondoko zatia da, borobil formakoa.

Gaztetatik zabilta ostalaritzan. Zarauzko taberna askotan lan egindakoa zara.

Hamabost urtetatik aritu naiz barra atzean. *Zazpi*, *Itsaso*, *Salegi* izan ziren nire eskola, zerbitzari lanetan aritu nintzen urte mordoxka. Zona aldean *Marina Txikin* ere jardun nintzen, baita Donostian ere. 1993. urtetik 2004. urtera *Zarautz kafetegia* taberna eta jatetxea eraman nuen. Oroitzapen oso ederrak ditut: udan langile eta bezero asko biltzen ginen har.



Barraren bi aldetara berriketan egon gara Julenekin. KARKARA

“Bezeroek ardoa, garagardoa edo freskagarria hartuko dute. Bat baina berezia izango da, norberak hautatua.”

Ostalari askori entzuna da *hura bai martxa esaera.*

Hala izan. Txikiteoa, bazkariak, meriendak, afariak... eguneko ordu guztietan mugimendua izaten genuen. Koadrila osoak etortzen ziren Eibartik, Gasteiztik, Nafarroatik: askok zer eguraldi egiten zuen galdezka deitzen ziguten, guk beti zoragarria zegoela erantzuten genien. Aperitibo ugari ateratzen genuen, txikiteoa izugarria zen. Jatetxean emandako otorduak gutxi ez eta etxera eramateko paellak prestatzen genituen. Arratsaldean txurroak txokolatearekin, ondoren afariak eta gaueko martxa. Goizetik gauera beti bezeroekin.

Kontatzen ari zaren hori Zarautzen gertatzen zen. Ez da Orioren neurria.

Orain ez, baina, gogoan dut orduko martxa: neska lagunarengana etortzen nintzen Oriora eta herriko sarrerako eta plaza aldeko tabernetan jende pila egoten zen beti. Herritarrak, basoa eskuan, errepidera aterata egoten ziren. Ostalaritza ikuspegitik herri biziak izan dira Zarautz eta Orio. Bada alde bat: Orion sagardoa edaten da gehiago eta Zarautzen Txakolina.

Zer aldatu da 90. hamarkadatik gaur egunera?

Bezeroaren ohiturak, eta hortik ostalaritza bera. Gaur egun txikitero gutxi daude, Orion hiru edo lau koadrila izango dira ohiturari eusten diotenak. Kontsumoa sakabanatuagoa eta eksklusiboagoa da. Umeen zaintzak ez du aisialdirako tarterik uzten, asteburuan eta bikoteka edo talde txikietan dator jendea. Ardoa, garagardoa edo freskagarria hartuko dute. Bat, baina, berezia izango da, norberak hautatua.

Lehen hiru gauza eskaintzen ziren eta hiru zerbitzari nahikoa ziren tabernan erantzuteko. Orain erreferentzia gehiago eskatzen dituzte, eskaintza ugari behar izan dugu: ardo taula, freskagarriak, zumoak, urak... Esnea esaterako, bakoitzak berea hartzen du: soiaduna, laktosa gabea, desnatatua, tenperatura batean edo bestean... Horrek baditu bi ondorio: barraren antolaketa egokitu eta zerbitzatzeko jende gehiago behar duzu.

Hona hemen soziologia klasea barraren atzetik emana.

Aurrekoan langile batek kafe hutsa eta *Sol y Sombra* eskatu zizkidan eta harritu egin nintzen. Zerbitzariak ohitu egin gara buzodun langileei laranja zukuak ateratzera. Gizartea aldatu da, eta barra ere bai: umeak dituenak aste barruan ez du kalera ateratzeko astirik eta osasunaren inguruko kezka ere handiagoa da. Horrek eragina izan du ostalaritzan: gremioan joan-etorri handia dago, aldi baterako ofizio bilakatu da, bokaziodun jende gutxiago dago barra atzean.

ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito
 943 831 774
 600 856 728
 anderexpoelektrizitatea@gmail.com

SU KIA
 TABERNA - JATEXEA

On agin eta gero... hartu KOPA eta TOPAE

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tel. 943 892 428
 BARRIOBEN 26, 1. BARRIO

emakume arropa - neurri bereziak
 kinkiladenda - barruko arropa

argine

15eko deskoltsua familia sagarim sartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orrio
943 134 889 argine/jantziak

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

Carmen eta Txomin
 ARRAZDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)

943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

arkaitz taberna
 ... orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

Alustiza Autobusak
 Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 - 679 428 851

Lorezaintza
 Mendiko lanak
 Indusketak
 Itxiturak

... ...

txukunlorazantza@hotmail.com

ANOBGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

libe
 dietetika
 elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO
 [sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 - 697 23 86 56
 libegarmendia@gmail.com

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
 688 714 869

Santi Barranco
 Orioko ordezkaria

Endaia Eparantza, 1
 20810 Orrio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

K-U-K-U-A-R-R-I
 ELEKTRIZITATEA

Tel: 943 100 101
 Mobilak 640 201 300
 Zigoitia, 52 - Beñea C
 20000 Zarautz

kukuarri@kukuarri.com

EKILORE
GARBIKETAK

626417841
 ekilore@outlook.es

Herri txiki, konplexu handi



Olatz Artola

Menu konpletoa egin dezakezu gurean: perla beltzaren, txuletaren, gozoaren eta zergatik ez, bisiguaren herria baita gurea.

Tolosarrok *todo lo sabismo* sindromea omen dugu. Nik beste diagnostiko bat egingo nuke. Bilbotarrei egozten diegun *bilbaino* izaera totala daukagu tolosarrok. Tolosar-tolosarrok. Gure tolosartasun termometroak goiak jotzen du. Hiriburu izatearen uberak herria hiri ikustarazten digu.

Ez du parekorik. Ez da herririk horrelako giroa duenik. Kanpotarrak ere protagonista diren festak daukagu. Munduko festarik onenak. Herriko jaiak ere urtez urte hauspotzen. Eta gainontzeko festak *fest*.

Menu konpletoa egin dezakezu gurean: perla beltzaren, txuletaren, gozoaren eta zergatik ez, bisiguaren herria baita gurea. Orioko estiloa ere ekarri dugu barnealdera.

Historiak dio arraunaren habia zaretela, bai; baina gurean ere badugu trainerua, zuen uretan koskortuko dena. Bistakoa da, ez dugu inoren inbidiarik.

Bai, gaitz hori daukagu. Eta bai, gure burua diagnostikatzeko eta medikatzeke ohitura zabaldua dagoen mende honetan, tolosarrok ez diogu gaitz horri erremediorik jartzen.

Arren, ez ditzala zuen herri txikiaren konplexuak Bisiguaren Festak *Bisigu Fest* bihurtu, zuen hizkuntza zaharra konplexuz josi. Ez mugatu zuen ondarea historikoa punta-puntako Nikolas trainerura, eta ez tratatu *Txiki* txikia balitz bezala

Bizi oriotartasuna hankak lurrean jarrita, aniztasunetik, berdintasunetik, euskaratik. Izan oriotar peto-petoak, eta ez *coolak*.



Jon Garate

Ezjakinen legea, kritikatzea

Txikitariak beti esaten nuen ez zitzaizkidala gustatzen garbantzuak. Gurasoek ordea, probatzeko eskatzen zidaten. Sekula ez nituela jan eta beraz ezin nuela jakin gustatzen zitzaizkidan ala ez.

Aholku bera emango nieke erraztasunez kritikatzeko duten horiei. Telebistan lanean hasi nintzenetik askotan gertatu zaidan gauza da. Jendeak zertan lan egiten dudan galdetzen dit eta nik telebistan, ETBn nabilela erantzuten diet. *Puuuf, ETBn... Nik hori ez dut ikusten.*

Hurrengo galdera zehatzagoa izaten da. Telebistan zer egiten dudan jakin nahi izaten dute, eta *Gure kasa* saioan gidoilari lanetan nabilela erantzuten diet. Momentu horretan iristen da hurrengo kritika: *Ez zait batere gustatzen programa hori!*

Nik beraz, gustatzen ez zaiena zer den galdetzen diet. Horrela hobetu ahal izateko. Eta erantzun hori da grazia gehien egiten didana: *Ez dakit zer daukan txarra, ez dut inoiz ikusi.*

Badakit gauza asko izango ditugula hobetzeko; eta ETBk ere milaka aldaketa beharko lituzkeela. Baina nola kritikatu daiteke inoiz ikusi ez duzun saio bat? Audentzia aldetik behintzat datu onak ematen ari da eta jendeak ikusten du. Beraz, kritikatzeko eskatuko nieke. Azken finean, urte batzuk geroago, nik ere probatu nituen garbantzuak eta gaur egun ikaragarri gustatzen zaizkit.

Nola daude Orioko ekipamenduak?

2017 amaieran parte-hartze prozesua jarri zuen martxan Orioko Udalak, Elhuyar Fundazioarekin elkarlanean. Helburua, **herriko ekipamenduei buruzko hausnarketa** egitea zen: haien gaur egungo egoeraz jabetzea, herritarren beharrak ezagutzea eta ikuspegi orokor batetik lehentasunak ezartzea.

TESTUA: M. GARCIA

ARGAZKIAK: KARKARA

Azken hamabost urteetan hazkunde handia izan du Oriok, 650 etxebizitza inguru erai-ki dira herrian. Ekipamenduetan ere handia izan da hazkundera: azken hogeitau urteetan egin dira Orioko ekipamendu nagusi gehienak. Herria ekipamenduz ondo osatuta dago, beraz, baina aurrekontu mugatua du horiek mantentzeko eta berriak sortzeko.

Horren harira, parte-hartze prozesua egin zuen Udalak 2017ko azaroan eta abenduan. Elhuyar fundazioko dinamizatzaileek bideratuta, hiru saio egin ziren herriko elkarteetako ordezkariekin eta herritarrekin. Bilera horietan, talde eragileak egindako diagnostikoa aurkeztu ostean, herritarren ekarpenak bildu zituzten. Urtarrilean argitaratu zituzten parte-hartze prozesuaren emaitzak eta prozesuan sortu diren txostenak.

Gaur egungo ekipamenduak

Oriok 112.089 metro karratu ditu berdegunetan, 19 metro karratu biztanleko. Horrez gain, 2 aisialdi gunek, 9 haur parke eta 5 jolas eremu ditu aire librean.

Administrazio ekipamendu aldetik, 1.600 metro karratuko Udaletxeaz gain, gizarte zerbitzuetarako espazioa dago Azurza Etxean. Hezkuntza aldetik, berriz, badira hainbat ekipamendu: Ikastolak eta Zaraguetak HH, LH eta DBHko hezkuntza zerbitzua ematen dute; Maria Maestra haur-eskolak 700 metro karratu ditu eta Danbolin Musika Eskolak musika mintzaira ematen du. Hori guztiaz gain, 2015ean Udal Euskaltegia jarri zen martxan.

Hainbat kirol instalakuntza daude Orion. Batetik, udal kiroldegia, 6000 metro ingurukoa. Bestetik, Arraunetxe, Mendibeltz zelaia, 3 pilotaleku, kirol portu bat eta surf lokal bat daude.

Kultur ekipamenduak honakoak dira: Kultur Etxea -1996 urte ingurukoa-, Kosta Tailerra, Donejakue bidearen interpretazio zentroa eta Salatxo aretoa. Haur eta gazteentzat ludoteka, gaztelekua eta gaztetxea ditu Oriok. Bisitan datozenen zuzenduta, turismo bulegoa, udal kanpina eta Donejakue bideko aterpetxea daude.

Mugikortasunari lotuta, 3 igogailu, bidegorri sarea eta garraio publikoa ditu herriak. Hondartzan, berriz, hondartzako kabinak, txiringitoak eta txu-txu trena daude.

Osasun zentroa, eliza bat, 2 ermita, meskita bat, hilerria, Mutiozabal ontziola, Zaharren Babeslekua, eguneko zentroa etxebizitza tutelatuak, 4 komun publiko eta hainbat aparkaleku dira Orioko gainerako ekipamenduak.

Parte hartze datuak

Hiru bileretan, guztira, 105 herritarrek hartu zuten parte: 32k kultura, kirola eta gazteriako bileran, 37k hezkuntza, merkataritza, turismoa eta sozio-sanitariokoan eta 36k azken saio irekian. Orokorrean emakume gehiagok parte hartu zuten saioetan –56–, baina bien arteko tarte txikia izan zen –49 gizonetako izan ziren–. Hogeita bost urtetik beherako eta 66 urtetik gorako hainbat herritar izan baziren ere, prozesuan parte hartu zuten gehienak 26 eta 65 urte bitartekoak ziren.

Ekipamenduen balorazioa eta proposamen berriak

Oro har, parte-hartzaileek balorazio ona egin zuten Orioko ekipamenduei buruz. Txostenaren arabera, elkarte eta eragileak asea daude herrian dituzten ekipamenduekin eta *azpimarratu dute aurrekontua txikia dela guztien mantenua eta behar diren inbertsioak egin ahal izateko*.

Gaur egungo ekipamenduen hobekuntzarako proposamenak egin zituzten herritarrek. Salatxo Aretoaren irisgarritasuna hobetzea, Kosta Tailerrean igogailua, Mendibeltz zelaiko belardia aldatzea eta Arraunetxeko sarbidea eta pantalanaren irisgarritasuna hobetzea proposatu ziren, besteak beste, lehen saioan.

Bigarren saioan ere zenbait hobekuntza proposatu ziren: Zaraguetan, frontoiari etekina ateratzeko hobekuntzak egitea eta areto bat egitea; Ikastolan, HH eta LHko eraikinen fatxadak segurtasunagatik berritzea; musika eskolan berogailu sistema, elektrizitatea eta irisgarritasuna hobetzea. Horrez gain, osasun zentroa handitzeko egokitzapenak egitea, herriaren erdigunean aparkalekuak egitea, turismo bulegoa behera jaiste eta udan beste informazio puntu dinamikoak sortzea hondartzan, baserri-bideak konpondu eta urak kanalizatzea ere proposatu zuten herritarrek.

Azken saioan parte hartu zutenek, aurreko saioetan proposatutako ekipamendu berriak aztertu eta lehen-tasanak zerrendatu zituzten. Bi behar nagusi lehenetsi zituzten: erabilera anitzeko auditorio bat eta haurrentzako parke estalia. Horrez gain, Ortzakan auzotarrak elkartzeko gune estali baten beharrari ere garrantzia eman zioten. Kofradia kultura eta turismorako elkargune bezala egokitzea eta federatuek erabiltzeko moduko frontoi baten beharra jarri zituzten ondoren zerrendan. Motondo padura bihurtzea eta bidegorriak egitea ere garrantzizkoa zela erabaki zuten. Azkenik ondoko proposamenak ere sartu zituzten lehenetsitakoen zerrendan: adinekoentzako ariketa fisikoa egiteko eremu gehiago sortzea, Abaromendi inguruan kirol eremuak eta aisialdirako eremuak egitea eta pentsioak eta lotarako toki merkeen beharra.



2017 amaieran egin zuten parte-hartze prozesua. KARKARA



Kultur Etxea da Orioko ekipamenduetan zaharrena. KARKARA



Antonio Campos

Ilusioa

Zahartzaroa beti lotu izan dugu heriotzarekin nahiz dependentziarekin, eta ondorioz, gure bizitzako azken etapa gisa definitzen dugu. Baina, nire ustetan bada oraindik ere azken etapa horri etekina ateratzeko makina arrazoi.

Zahartzaroa beti lotu izan dugu heriotzarekin nahiz dependentziarekin, eta ondorioz, gure bizitzako azken etapa gisa definitzen dugu. Baina, nire ustetan bada oraindik ere azken etapa horri etekina ateratzeko makina arrazoi; horietako bat ilusioa da. Hirugarren adinekook pertsona mendeko eta *zahar* gisa ulertzeak ordea, ez du askorik laguntzen ilusioa mantentzerako orduan eta horregatik diot, bizi osoan beharrezkoa den ilusio horri eusten jarraitu behar dugula gure bizitzetako azken etapan.

Bizitzan hiru etapa nagusi bereiz ditzakegula esan genezake:

Lehenengoak haur eta gazteak hartzen ditu bere baitan; gutxi gora behera, 18-20 urte arteko jendea. Formazioaren etapa moduan definituko nuke nik, azken finean, urte horietan guztietan pertsona bizitzarako behar dituen gaitasun guztietan hezten baita; bai gorputz, baita arima ere.

Bigarrena, zalantzarik gabe bizitzako etaparik luze eta eraginkorra, 20-65 urte arteko pertsonen osatzen dute eta bertan, bizitzaren kudeaketa gertatzen da. Izerdia botaz, makina erabaki hartzeko ausardiaren beharra etortzen zaigu eta modu horretan, egunerokotasuna bizitzen dugula esan genezake.

Bukatzeko, azken etapa daukagu: zahartzaroa. Bizitzaz gozatzeko etapa beharko luke izan. Ordura arte aktibo pasatutako urteetan lortutako guztia nahiz botatako izerdi guztiez gozatzeko aukera izan beharko genuke. Bizitza honetako egin behar guztiak ia eginda bizi egin beharko genuke; bizitzaz gozatu. Heriotza, bera bakarrik gerturatuko da gugana, gu haren zain inon eta inola egon gabe.

Ondorioz, hirugarren etapa hori duina eta esanguratsua izan dadin, inguru horretan lanean gabiltzanok, gure zeregin guztiak azken paragrafo horretan esandako *bizitza gozatzeko* helburuan zentratu beharko genituzke eta horren baitan eraldatu ingurua eta baita pertsonak ere.

Gainera, hirugarren etapako jendeak ere ekarpen ugari egin ditzake gizartera: gero eta pertsona prestatuagoak daudenez zahartzaroan, horiek guztiak beren denboraren zati bat gizarteari eskaintzea lortuko bagenu, gizarteak eskertuko luke eta baita ahalegin hori egiten duenak ere, azken finean, ba al dago besteengatik eta besteentzat zerbait egiteak baino zoriontasun handiagoa transmititzen digun zerbait?

Zoriona ezin da lortu ezer egin gabe; hori ere aurkitzen jakin behar da. Heriotzarekin ez bezala, zoriona bilatu egin behar da esfortuz, nahigabearekin, sufrimenduz...

Presta dezagun gure gizartea zahartzaroan bizitzaz gozatzeko.

Komentaristak



Eli Huegun

Albistearen arabera, irakurtzen hasi aurretik badakit ze motatako komentarioak irakurriko ditudan. Posible al da jendea hain aurreikusteko modukoa izatea?

Afizio arraro bat daukadala onartu behar dut: egunkari digitaletan, nolabait genero berdintasunarekin lotutako albisteei jendeak egiten dizkien komentarioak irakurtzea. Bai, nolabait hitza erabiltzen dut, pare bat atari espezifiko kenduta, oraindik ere asko kostatzen zaidalako medioetan feminismoa bilatzea. Masokista naizela pentsatzen duenari arrazoi pixka bat eman beharrean nago.

Euren burua *progrez*at daukaten tokietan sartzen naiz gehienbat, nire usteak noizbait ustelak izango diren esperantzaz, baina ez. Albistearen arabera, irakurtzen hasi aurretik badakit ze motatako komentarioak irakurriko ditudan. Posible al da jendea hain aurreikusteko modukoa izatea?

Ezer ez dagoen lekutik ezer ezin dela atera esaten da, baina esango nuke ez dela kasua, nahita egiten dutelako.

Bi albiste irakurri berri ditut. Lehena, Valentziako fallatan ikuskatu egingo dela emakumearen gorputza objektu modura erakusten den edo ez. Erreakzio orokortua? Esajerazioa, biktimismoa, histeria, generoaren diktadura (?), inkisizioa, androfobia (?)... Bigarren albis-

tea Larry Nassarrek hamarkada luzez Estatu Batuetako gimnastei egindako sexu eraso eta abusuei buruzko epaiketari buruzkoa. Albistea latzagoa den heinean, erantzunek ere min handiagoa ematen dute. Gogoeta zabalduena, erasotzaileak arazo psikiatrikoak dituela da. Gero, gimnasten inguru sozialari begiak itxita edukitzea leporatzen diote. Zirko mediatikoaren mesedetan asmatutako gauza dela esaten duenik ere bada, baita azken hilabeteetan Hollywooden inguruan sortutako zalapartagatik benefizio propioa atera nahi dutela diotenak ere.

Irakurri ditudan azken bi albisteetan topatutakoaren laburpena baino ez dut egin. Ateratzen dudana ondorioa? Askok eta askok ez dutela benetako arazoa ikusi nahi, eta ikusten dutenek, erantzukizuna alboratzen dutela. Ez al da izango albisteei ikusarazten duten horrekin ados daudela? Bestela, nondik dator era horretara mintzatze-ko behar hori?

Normala al da albiste hauei egindako hiru komentariotatik bitan horrelako mezuak irakurtzea? Gizarte patriarkal batean bizi garen heinean ohikoa izaten jarraituko du, baina inoiz ez normala.


Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra


Harrespil
Hilerrri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

“Triala kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da”

Mikel Lertxundi

Motozalea

Mikel Lertxundi bizikleta kontuengatik da ezagun Orion. Oraingoan ere, bera elkarrizketatzeko aitzakiak bi gurpil ditu, baina motorra ere badauka: trialean aritzen da motoarekin, eta Euskadiko txapelketa irabazi berri du TR4 kategorian.

I. GAITON

Bizikleta dendan hartu gaitu Mikelek. Negu partean jende gutxiago izaten duela eta, lasai jardun gara berrikeretan. Bere kontuez gain, Haitz semeaz ere hitz egin digu: motozalea da txikia ere, eta berarekin batera dabil txapelketetan.

Jaiotzez, aiarra.

Mindi baserrikoa, bai. Zarautzen bizi naiz gaur egun.

Eta Orion denda, nolatan?

Krisia hasi zenean, enpresatik bota gintuzten langile batzuk. Betidanik gustatu izan zait bizikletak eta motoak konpontzea, eta gehiegi pentsatu gabe, hemen denda irekitzera animatu nintzen.

Gustuko duzu zure lana.

Bai, nire saltsa da hau: bizikletak puntuan jarri, *pintxazoak* konpondu, berriak saldu... Ez dut aspertzeko astirik!

Krisiak ekarritako aldaketa, beraz, ondo aprobetxatu duzu.

Hala dirudi, bai! kar kar kar

Nondik datorkizu bi gurpilen gainean ibiltzeko zaletasuna?

Baserrian bizi nintzenean, bizikletari ez nion kasu berezirik egiten. Fabrikan lanean hasitakoan zaletu nintzen gehiago, lankideekin batera. Hor egin genuen kuadrillatxoak. Afizioa indarra hartzen joan zen, eta bateko eta besteko, behin baino gehiagotan egin dut *Quebrantahuesos* lasterketa ezaguna.

Motozalea ere bazara. Noiztik?

Betidanik. Moto dezente izan ditut, era guztietakoak:

trialekoak, errepidean ibiltzekoak, mendikoak... Duela bi urte edo, *Quebrantahuesos* lasterketan parte hartzeko dortsalik gabe geratu nintzen. Beste motibazioren bat bilatze aldera, trialeko motoa erosi nuen. Duela hamabost urte edo, izan nuen bat. Lagunek kuadrilla bat mendian ibiltzen ginen igandero. Oraingo motoarekin, ordea, oztopoz betetako zirkuituak egiten ikasten hasi nintzen, triala egiten.

Zure kabuz?

Ez, lagun talde batekin. Urtebetera, beraiek animatu ninduten txapelketetan parte hartzera. Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiet emandako babesagatik. Nire emazteari ere bai. Denek lagundu didate ikaragarri.

Duela gutxi irabazi duzu Euskadiko txapelketa.

Zirkuituko proba batzuk irabazi ostean, lehen postuan bukatu dut sailkapen orokorrean, TR4 mailan. Baxuena da, TR3, TR2 eta TR1 ditu gainerik.

Zenbat lagunek parte hartzen duzue?

Txapelketetan 50-80 partaide inguru juntatzen gara. Nire kategorian hamabost, gutxi gora behera.

Kontatu nolakoa den txapelketa bat.

Zazpi zirkuitu egin behar izaten dira, denbora jakin batean (laupabost ordu). Zirkuituek oztopoak izaten dituzte. Motoa itzali, oina lurrean jarri edo erortzeagatik, puntuak gehitzen zaizkio gidariari. Puntu gutxien dituenak irabazten du.

Moto gainean saltoka zabiltzala, inoiz sentitu al duzu beldurrik?

Beldurra ez, baina errespetua bai. Hala ere, kirol nahikoa



Aita-semeak gustura, moto gainean. Elkarrekin jarduten dira txapelketetan. M. LERTXUNDI

“Umeen Euskadiko txapelketan, Haitz semeak lehen postua lortu zuen.”

segurua dela esango nuke. Egin ditugun azken hemezortzi txapelketan, behin bakarrik izan genuen anulantziaren beharra, partaide batek lepauztaia hautsi zuelako.

Zortzi urteko semeari begira jarriko zara urduriago...

Ez pentsa! Kar kar kar bera gehiago beldurtzen da niri begira. Agian, hemendik urte batzuetara alderantziz izango da... Halere, badira beren seme-alabak lehiatzen ikusi ezin dituzten gurasoak.

Berak ere irabazi du txapelketaren bat, ezta?

Umeen Euskadiko txapelketa jardunaldi bakarra jokatu ta erabaki zen, eta bera izan zen garaile, bai.

Nafarroa- Errioxa zirkuituko zortzi froga ere egin ditu, eta hirugarren postua lortu du sailkapen orokorrean.

Bizikleta edo triala, bietako zein da exijenteagoa?

Ezberdinak dira. Bizikletaren exijentzia aerobikoagoa da. Trialak teknika eta kontzentrazio maila handiak eskatzen ditu. Giharrak indartsu eduki behar dira, 68 kiloko motoa gora eta behera mugitzeko. Tarteka gimnasia joaten naiz entrenatzera. Mendiko bizikletan ibiltzeak ere laguntzen dio prestaketari.

Tentsioa ere handia izango da motor gainean.

Bai. Bizikleta gainean *Quebrantahuesos* lasterketa hasi zain egoten nintzenean, bihotza minutuko 90 pulstaziotan izaten nuen. Trial txapelketa hasterakoan, 115era izaten dut. Martxan jarri orduko 160-170era igotzen da. Pasara handia hartzen dugu.

Ze asmo dituzu aurrera begira?

Maila bat gora egingo dut, eta TR3 kategorian arituko naiz lehian datorren denboraldian.

Ikus-entzunezko proposamen ausarta... eta gehiago

Kritika Elkarrekin together

Dokumentala, urtarrilaren 11n eman zuten Kultur Etxean.



Urtarrilaren 11n proiektatu zen kultur etxean 'Elkarrekin-Together' dokumentala, 50 bat lagunengatik. Dokumentalak Euskal Herriko arkeologo talde batek egindako bidaia kontatzen du: Estatu Batuetako kostaldeko irla txiki batera joan ziren iaz, antzinako euskal baleazaleen balizko arrastoak bila. Espedizioa zuzentzen ibili ziren, alde batetik, Albaola Itsas Faktoriako presidentea Xabier Agote eta, bestetik, Orion ondo ezagutzen dugun Zarauzko historialari bat: Xabier Alberdi.

Orio baleazaleen herria izanda, pentsatzekoa zen dokumentalak interesa sortuko zuela eta halaxe izan zen, proiektuaren osteko elkarriketan argi geratu zen bezala. Dokumentalaren aurkezpena egiteko eta ondoko azalpena emateko, Iñaki Goirizelaia etorri zen Oriora, BATZEN proiektuaren zuzendari gisa. Iñakik azpimarratu zuen proiektu hau anbizio handiko egitasmo zabal baten barruan sortu dela eta, oraingo honetan bezala, elkarlanaren bidea erabili nahi dutela etorkizunean gauzatuko dituzten proiektuetan ere, ekarpen pribatuak eta publikoak uztartuz.

JABIER ZABALETA

XS

obrak
proiektuak
erehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantentzea

arkitektura

borja agiresarobe lopetegi
heniko-barra 6. behekoa
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

IZARRA ELEKTROGAILUAK



COMBI
185x60
A++
499€



LAVADORA
7KG / 1200
A+++
289€



175€



175€

**ETORRI GURE
ESKAINTZAK IKUSTERA**

TIEN 24
Espele Guterri, 48 - Tel. 943 82 38 81 - 20010 Orrio (Gipuzkoa)



VILLA ANTILLA
HOTEL & THALASSO

OSPATU GUREKIN

San Valentín

Afari Berezia

Foie eta mango pannacota merenge tostatuarekin eta Faune Giró i Giró Brut Nature D.O. Penedés kopa bat
Kanela eta ahate kaneloi kurruskaridun entsalada fruitu gorri ozipin-olio eferbeszentearekin
Ostra bere naturaltasunean pepino izotz-edaria eta Chardonnay perlekin
Txerri kokotsez albardaturiko zigala eta kataifa babarrun gorri eta soja fermentatu kremarekin
Mandarina eta mango calpiroska
Galiziar azpiluna Idiazabal krema eta orburu erreekin
Jogur krematsua marrubi eta bere konpota garratzarekin

49,50€ / pertsonako prezioa

Pack Berezia

Gau bat logela bikoitz estandarrean
San Valentín-eko afari erromantikoa
Gosari bufeta
Trufak eta cava logelan
Talasoterapia zentruaren irekierarako gonbidapenak
(Talasoaren inaugurazioan)

199€ / bikoteko

Gaua logela bikoitz txikian: 195€
Gaua logela bikoitz superorrean: 219€
Gaua logela bikoitz deluxean: 239€
Gaua suite duplexean + Moët & Chandon : 259€

Otsailak 14tik 18ra

ERRESERBAK: 943 892 102 · reservas@villaantilla.com · HONDARTZA BIDEA 1, ORIO · HONDARTZA AURREAN

**ZAUDEN
LEKUAN ZAUDELA**



garay
manufacture

**SUKALDEAK
PROIEKTUAK
ERREFORMAK**

www.garay.eus

Olabidea aldea 1
(Errotaberri Industrialdea)
20.800 Zarautz

943 13 31 09



- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia leku eta dutxa jartzea
- Gremioen koordinazioa, dekoratzailea
- Zoru erradiazatzailea

zerbitzu teknikoak
24 ordu

fontana iturgintza

www.fontaneria-fontana.com

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK

fontana iturgintza
Plaza Erdala n°1, 20810 - Orío
fontana-ju@hotmail.es
661 262 828



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 -behea (20810 Orío)
Telf./Fax: 943 134 717
Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com



Danbor hotsak eskoletan

San Sebastian eguna izan zen aurreko larunbatean, urtarrilaren 20an eta, urtero bezala, Zaraguetako eta Ikastolako ikasleek mantal zuriak soinean jantzi eta biboteak margotu zituzten aurpegian, danborra gerrian lotu eta atabalekin gogor jotzeko. Goizean egin zuten danborrada Zaraguetakoek. Ohiturari jarraituz, eskolako pasiloetatik ibili ziren hasieran eta kanpoan jo zituzten, ondoren, azken abestiak. Ikastolan, berriz, arratsaldean elkartu ziren kiroldegian eta guraso eta familiartekoen begiradapean astindu zituzten danborrak.





“Hondakinen sistema berriak hiru urte barru hondakinen %75a gaika jasotzea ahalbidetuko du”

Otsailaren 1ean jarriko da martxan hondakinak gaika biltzeko sistema berria. Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten bost herriek bat egingo dute zabor bilketa sistema berriarekin. Guztira, hiru bilketa zerbitzu izango ditu: herritarrak, industriaguneak eta komertzioak eta ostalariak. Familia bakoitzak eta sortzaile txikiek txartel bidez funtzionatuko dute errefusaren eta organikoaren edukiontzien kasuan; gainerakoan berdin jarraituko dute.

Herritarrentzat, udalerrientzat eta ingurumenarentzat ahalik eta sistema egokiena adostu eta martxan jartzeko pauso garrantzitsua emanaz, Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten alderdi politiko guztiek –EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Irabazi eta Orain–, aho batez onartu zuten zabor bilketa mankomunatzeko akordioa. Urtebete geroago, otsailaren 1ean hain zuzen, hondakinak gaika sailkatzeko sistema berriari martxan jartzeko unea iritsi zaio.

Hori horrela, Urola Kostako bost udalerritan sistema bateratua ezarriko da, baliabideak optimizatuz, eraginkortasuna areagotzeko. Lan sistema batuta modu efizienteagoan egingo da hondakinen kudeaketa. Kale hezitzaileak bisitak egin dituzte baldintzetara ondoen egokitzen den sistema antolatzeke asmotan. Sistema berriak hiru bilketa zerbitzu nagusi izango ditu: herritarrak, industriaguneak eta komertzioak eta ostalariak.

Herritarrak bost edukiontzi bidezko bilketarekin jarraituko dute, errefusaren eta organikoaren edukiontziak txartel bidez irekiko direlarik. Txartelak norberari dagokion bizi eremuko edukiontziak irekiko ditu bakarrik eta, egunero, 24 orduz, erabili ahal izango da.

Bestetik, komertzioak eta ostalariak bi multzotan banatuko dira: sortzaile txikiengan eta ertain-handietan. Sortzaile txikiek herritarren bilketa sistema bera izango dute, txartel bidez irekiko dituzte errefusaren eta organikoaren edukiontziak; beste hiru edukiontzien kasuan orain arte bezala funtzionatuko dute. Sortzaile ertain-handiei, aldiz, gaikako bilketa zerbitzua eskainiko



“Otsailaren 15era arte errefusaren eta hondakin organikoaren edukiontziak zabalik egongo dira -txartelirik gabe irekitzeko-, baina otsailaren 15etik aurrera txartela beharko da.”



zaie puntuz puntu honako frakzioak jasotzeko: organikoa, papera-kartoia eta errefusa.

Azkenik, industrialdeetan puntuz puntu bilduko dira astean behin ondorengo frakzioak: organikoa, errefusa, ontzi arinak, egurra, papera-kartoia, plastiko filma eta poliespana.

Otsailaren 15era arte errefusaren eta hondakin organikoen edukiontziak zabalik egongo dira –txartelik gabe irekitzeko–, baina otsailaren 15etik aurrera txartela beharko da.

Helburuak eta abantailak

Finean, zerbitzu berriaren helburua da erraztasunak eman eta birziklatze tasa handitzea: gaur egungo %40ko tasatik %60ra igaroko gara 2018an, %70era 2019an eta %75era 2020an.

Horrek abantaila nabariak ditu, izan ere, errefusa gutxitzearekin tratamendu kostuak murriztuko dira, herritarrek edukiontziak 24 orduz eskura izaten jarraituko dute, merkatariak, ostalariak eta enpresek zerbitzu hobea jasoko dute eta, landa eremuan, birziklatzeko aukerak biderkatuko dira.

Kale hezitzaileak

Hondakinak gaika biltzeko sistema berriaren inguruan informazioa jaso eta aztertu dute kale hezitzaileak. Eskualdeko enpresa, komertzio eta ostalariei sistema berriaren nondik norakoak azaldu eta hondakinen sorkuntza datuak jaso dituzte. Horiek esku artean, eskualdearentzat egokiena den sistema antolatu dute.

Herritar ororen bitartekari nagusiak dira, bidelagun onenak. Urtarrilaren 22tik martxoaren 2ra herrietan finkatuko diren arreta eta informazio zerbitzuetan izango dira argibideak emateko prest. Bertan, sortzen diren galderak erantzun eta zalantzak argituko dituzte.

Horrez gain, sistemaren ezarpenari zuzeneko jarraipena egingo diote. *Kalean edukiontzien inguruan ibiliko gara herritarrei laguntzen. Enpresei zein komertzio nahiz ostalariei sistemara egokitzen lagunduko diegu. Urola Kostako Udal Elkarteak hezitzaile eta langileok laguntzeko egongo gara eta sor daitekeen edozein arazo konpontzen saiatuko gara uneoro, azaldu dute hezitzaileek.*

Aldaketa ez da handia eta denon esfortzu txiki batekin gure helburua lortuko dugu, 2020an sailkatze tasa %75ean kokatzea, gehitu dute. Xedeak beteta, eskualdean birziklatzea ohitura bilakatuko da eta hori da asmoa.

Urola Kostako Udal Elkarteak: Hondakinak Biltzeko Zerbitzua

Tel. 943890808

hondakinak@urolakosta.eus

<http://www.urolakosta.eus/eu/web/ingurumena-urolakosta/>

“InguruApp” aplikazioa

LAN ESKAINTZA

Karkara

KAZETARI KUDEATZAILEA

- Proiektuen, lan-taldean eta baliabideen kudeaketan eskarmentua
- Kazetaritza, komunikazio, ikus-entzunezko edo antzeko ikasketak
- Idazteko egokitasuna
- Komunikazio tresnak erabiltzeko gaitasuna
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Orio, Aia eta ingurunea ezagutzea baloratuko da

KAZETARIA

- Kazetaritza, komunikazio, ikus-entzunezko edo antzeko ikasketak
- Idazteko egokitasuna
- Komunikazio tresnak erabiltzeko gaitasuna
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Orio, Aia eta ingurunea ezagutzea baloratuko da

30 eta 35 orduko lan kontratuak

Bidali curriculuma otsailaren 7a baino lehen karkara@karkara.com helbidera

24 ORO

688 886 536

Desatascos LASTER

Sagar erreko 21-A - 20590 Sorluze
Abaromendi baje 3- 20810 Orlo
Tel: 943 751 431

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascoslaster.com

- Modi-libraketa.
- Garbiketak presio handiko urarekin.
- Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa.
- Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin.
- Uholde urak ateratzea.
- Ezkutuko kutxatilen detekzioa.

ETXEA ALOKATU EDO SALDU NAHI BADUZU ETOR ZAITEZ GURERA

ZALDUONDO
HIGIEZIN AGENTZIA

Aholkularitza
- Bilaketa pertsonalizatua
- Alokairua
- Salmenta

943 104 709
674 300 523
Foruen kalea, 9
20800 Zarautz
info@zaldundo.com

www.zaldundo.com

ASADOR XIXARIO

Enako Gasteroan Kalea, 2
Tel. 943 300 019 - ORIO

KOLON TXIKI
gintxatutua
jokaburu

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

HAIZE BERRI
barrena-jatebura-kafetegia

Plater konbinatuak, bokafak, hamburgerak, rabiok, eguneko menua...

ostiralean pintxo potez!!

eta etxera eramateko zerbitzua!
943 831 623

Orriko kiroldegian, Erbera 1

Garbine Arregi

Modo eta osagarriak

Horako platera
635 706 263

pauperrak gaituz zabaldu!



Konpetentziari -eta desgaitasunei- aurre eginez

1983 eta 2013 urteen artean, Orioko plazatik Gureak enpresaren lantokia ikus zitekeen, errioren beste aldean. 2014an fabrika Zarautza mugitzearekin batera, aldendu egin zitzaigun hainbat herritarren errealitatearen zati bat.



TESTUA: I. GAITON
ARGAZKIAK: KARKARA

Juan Antonio Iturainek ogi egin berriaren usainarekin hasi zuen ibilbide profesionala, gaztea zela. Goizeko hirurak aldera jaikitzen zen, aitari etxeko *panaderian* laguntzera. Ogiak egin ostean, barrak otarrean hartu eta herrian banatzen zituen. Garai hartan, Donostiatik etortzen zen *periodikozaleak* herria zeharkatzen duen errepide nagusian lagatzen zituen egunkariak, eta haien bila ere joaten zen, tar- teka, familiako estankora eramateko.

80ko hamarkadan Gureak-en hasi zen lanean, *KRAFFT eta Indauxentzat piezak egiten, Frantses Fabrika* zaharrean zuten lantokian. Gaztetako kontuez mintzo den bitartean, produkzioak ez du etenik; autoen haizetakoe- tarako piezak darabiltza eskuartean. Volkswagen, BMW

edo Mercedes markako kotxeren baten kristala lehortzen bukatuko dute.

Juan Antoniorekin batera, Orioko eta Aiako beste 24 lagunek egiten dute lan Zarautzen. Gureak-en xedea, desgaitasunen bat duten pertsonentzat lan aukera egonkor- rarak sortzea da. Erakundea 1975ean sortu zuten, eta gaur egun, 5.000 langiletik gora ditu; lan-taldeko %83ak du desgaitasunen bat. Urteekin, industriaz gain, enpresaren jarduna beste alorretara ere zabaldu da: lorezaintza, osta- laritza, garbiketara, komunikazioa, marketina...

Sektore exijenteetan lehiakor

Zarauzko instalazioek itxura modernoa dute, argitsuak dira. Puntako teknologiarekin hornitutako makinetan,



“Gureak enpresak 5.000 langiletik gora ditu gaur egun.”

“Bezeroei ez zaie inporta enpresaren profil soziala, produktuen kalitatea da baloratzen dutena.”

langileak fin ari dira lanean. Isiltasunik ez badago ere, ez da zarata handiegirik entzuten. Atsegina da lan giroa.

Bezeroei ez zaie inporta gure enpresaren profil soziala: produktuaren kalitatea da baloratzen dutena. Estitxu Aldanondok garbi du hori. Bera da fabrikako sail baten arduraduna. Hemen, automoziorako piezak egiten ditugu batik-bat. Oso sektore exigentea da, huts gutxi onartzen ditu. Milaka piezetatik batek akatsen bat izanez gero, atzera itzultzen dizkiete denak, berriz errebisatzeko. Bezero asko harritu egiten da produktuen kalitatea eta gure langileen gaitasunak ezagutzean.

Hasier Zabaleta oriotar gaztea lanean ari den makinan, Gureak-ek bere historian patentatu duen lehen pieza dabilte eskuartean. Autoen fokuek proiektatzen duten argia automatikoki erregulatzen du gailuak, kontrako norabidean datozenei trabarik ez egiteko. Hurrengo lau urteetan lau milioi pieza produzitzea aurreikusten dute.

Ordea, nola uztutzen dira desgaitasunak dituzten langileen garapena –pertsonekin eta profesionala–, merkatu lehiakorren exigentzia eta enpresaren bideragarritasuna? Lan prozesuaren analisia eta banaketa ondo eginda. Hor du erroa Gureaken errentagarritasunak. *Komunikazioa handia da langileen eta lan prozesuak diseinatzen dituzten ingeniariaren artean. Hauek ondo ezagutu behar dituzte langileen gaitasunak eta mugak, produktioa errentagarri egiteko. Enpresak geroz eta baliabide gehiago inbertitzen ditu horretan.*

Lan sozialaz gain, ekarpen ekonomikoa

Arduraduna lantokia erakusten ari zaigun bitartean, Joxeba Altuna oriotarrarekin egin dugu topo. Lau hitz egin ditugu berarekin. Gustura dago, ostirala izanik, gaur lehenago bukatuko dutelako lan-eguna. Ordubi t´erdiatarako etxean izango da, bazkaritarako. Orain, hamabietan, txirrinak bost minutuko deskantsuaren hasiera markatuko du. Batzuk zigarroa erretzera aterako dira; besteak, besterik gabe, hankak luzatzera.

Gureak-ek desgaitasunak dituzten pertsonekin egiten duen lan soziala nahikoa ezaguna da, baina bere ekarpen ekonomikoaren inguruan ez da asko hitz egiten. 2016an, adibidez, aipatzekoa da zuzeneko zergetan soilik, administrazio publikotik jasotako diru-laguntzak baino 4 milioi gehiago ordaindu zituela erakundeak.

Europar tankera honetako enpresek diru-laguntzekiko %60ko dependentzia dute batz bestea, azaldu digu Estitxuk. Gureak %84an autofinantzatu egiten da, salmenten irabaziekin. Enpresa irabazi asmorik gabekoa denez, helburu nagusia lan taldea mantendu, eta orain arte bezala, enplegua sustatzeko lan aukera pertsonalak eskaintzea da.



Teknologia eta eskulana uztartuz

Azken urtetan, teknologia aurrerapenen ondorioz lanpostuak gutxitu dira sektore askotan. Beren kasa aritzeko gai diren robot eta makinek eskulana ordezkatu dute. Gureak-en erronka handienetakoa da horri aurre egitea. Talde bat dute propio gai hori lantzen, etorkizunari begira. *Hala ere, teknologiak lagundu ere egin digu. Batez ere, produktuen azken kalitatea bermatzen duten makinak optimizatzen, argitu digu Estitxuk.*

Enpresak pertsona jartzen du beste ezeren aurretik. Langile bakoitzak bere plan pertsonala du interes, prestakuntza, gaitasun eta helburuen arabera. Ordea, gizarteak zer daki desgaitasuna duten pertsonen aspirazio profesionali buruz? Inoiz pentsatu ere egin al dugu helburu profesionalik izan dezaketenez ere? Orokorrean, ezjakintasun handia dugu. Gainera, ezagutza falta hori protekzionismoarekin konpentsatzen dugu sarri, eta horrek ere ez dio inori laguntzen. *Sentsibilizazioaren bidez, eragin egin behar da gizartean, jende askoren errealitate hau argitara eman, dio Estitxuk.*

Profil ezberdineko langileak

Jendarteak behar gehien duten pertsonekin identifikatzen du Gureak; sarritan, jaiotzatik desgaitasun intelektualak dituztenekin. Proporzio batean, hala da, baina bertan badira gaitasun eta autonomia handiko langileak.

“Langile bakoitzak bere plan pertsonala du interes, helburu eta gaitasunen arabera.”

“Enpresak garrantzia handia ematen dio langileek lan desberdinak egiten ikasteari.”



Bizitza momentu batetik bestera alda daiteke. Auto istripu batek, edo gaixotasun mental batek, edonoren kapazitateak mugatu ditzake, dio Estitxuk. Azken urteetan, gaixotasun mentalak dituztenen kopurua igo egin dela antzeman dute, besteak beste, drogek, krisiak edo egungo jendarteak duen estres maila altuak eraginda.

Berriketan goazela, lantokiko txoko guztiak ikusi ditugu. Autoentzako produktuez gain, sukaldeko altzairuen burdinazko piezak ere egiten dituzte makina batean. Marka suediar ezagun batentzat dira. Langile bakoitzak aurrean du bukaerako produktuaren irudia. *Langileei argi azaltzen diegu lantzen dituzten piezak zertarako diren. Oso garrantzitsua da hori, lanari zentzu eman eta bere zeregina osotasunean uler dezaten. Horretarako dira argazkiak.*

Lan eta kontratu mota ezberdinak

Bi lan egoera dituzte enpresako langileek: zerbitzu okupazionala eta kontratupekoa. Lehen multzokoek grafikazio ekonomikoa jasotzen dute, bigarrengeok soldata. Gureak-en helburua, zerbitzu okupazionalan daudenak kontratupera pasatzea da, trebatzen joan ahala. *1975ean enpresa sortzean, desgaitasuna zuten pertsonak lanean jartzea zen helburua, produzitzea, okupazio hutsetik harago. Langile guztiek ez dute kontratupera segituan pasatzeko aukerarik, baina ahalegin handia egiten*

dugu beren kapazitateak indartu eta polivalentzia lantzen, azaldu digu arduradunak.

Iraganean, zerbitzu okupazionalako langileak tailer edo fabrikako lanean aritzen ziren gehienbat, industrian. Gaur egun, enpresaren zerbitzu alorreko lanak ere egiten dituzte: lorezaintza, garbiketara, ostalaritza... Langileak kalleko lanetan jartzea, urrats garrantzitsua izan zen gizar-tea sentsibilizatzeko prozesuan.

Juan Antoniorekin juntatu gara berriz. Lehengo lanpostuan jarraitzen du, baina hau ez da beti horrela izaten. *Goizeko lehen orduan kableekin aritu naiz lanean, eta gero heldu diot honi.* Enpresak garrantzi handia ematen dio langileak zeregin ezberdinak izan eta lan berriak ikasteari, gaitasunak garatzen joateko.

Jubilazioa, lasai bizitzeko

Lantokiko arduradunak agur esan digu, eta Juan Antoniorekin amaituko dugu laneguna. Gutxi falta da ordu-bietarako Bera jubilatzeke ere bai. *“63 urte beteko ditut abuztuaren, eta urte bukaera baino lehen hartu nahi nuke erretiroa. Urteak antzematen dira, gaztetan beste sasoi bat nuen! Bizkarrezurrean ere badut tarteka mina ematen didan desgasteren bat... Nahikoa egin dut nik!*

Erretiroa hartutakoan zer egin behar duen galdetuta, azkar erantzun digu: *Pasieran hondartza aldera buelta batzuk egin, estankotan laguntzen jarraitu... eta lasai bizi!*

KAIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Amara kalea, 1
T 943 341 800
ORDO (Guzkotz)

Zigorri kalea, 18
S. Frantzisko kateoliko ibarag
T 943 021 804
ZARAUZ (Guzkotz)

Embari kalea, 10
T 943 543 000
ZUMAIA (Guzkotz)

www.kaioa.es

LEUNDA OKINDEGIA

ORDUTEGI ALDAPAKETA 943 89 00 67
asteleheneretik-larunbatara igande eta jai-egunetan
7.00-13.30 / 17.00-20.30 7.00-13.30

ur bide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20000 Zarautz
943 290 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

BODEGAS Gailur
94307 24300 & 42860
Tel./Fax. 943 00 41 38
www.bodegasgailur.com
Amara Emisak

ZUDUGARAI
Galariako Trikotaina
Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 04 32
iturbidezagorri@bodegaiturbide.com
www.bodegaiturbide.com

sinergia FISIOTERAPIA IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAIINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

GARMENDIA
HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendigestion.com

ETXeko BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05

ITZALA
kartela jokatzeko aproposa
tel. 943 83 12 59

Lizaso dekorazioa

Tf: 943 83 07 84
Faxa: 943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARITZAGA BAGA, 2 - TEL. 943 13 19 43
www.ancercor.com/rosgarbinerrosa

10% DESKONTUA FAMILIA UGAJENTZAT

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)
Tf 943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)



Erdian senar-emazte ezkon berriak, alboetan aitajaun-amandreak.

Komandantea eta arraunlaria

1937ko martxoaren 5ean gerra zibileko itsas borrokaldi izugarri latza izan zen, Bermeoko Matxixako lurmuturraren aurrean. Alde batetik, Euskal Gubernuaren armadako gerra-ontzi bat, eta, bestetik, nazionalen gerra-ontzi ahaltsuena. Euzko Gudontzidiko Bou Navarra, eta Francoren armadako Canarias kruzero erraldoia. Elkarren kontra kanoikadaka aritu ziren.

Galdames merkantea babesten lau euskal gerra-ontzi txiki zihoazen, lau Bou (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Navarra), Canariasek eraso jo zuenean. Haietako hiruk alde egin zuten. Bou Navarrakoek Canariasi aurre egitea erabaki zuten, nahiago zuten hondora joan, etsi eta entregatzea baino.

Bou Navarra bakailao-ontzia izan zen Pasaian, gerra hasi zen arte. Hamar aldiz txikiagoa zen Canarias baino. Kanoikada batzuk jaso zituzten, baina ez ziren errenditu. Ontzia hondora joan zen. Hamaika gizon ito ziren han, tartean kapitaina, Enrique Moreno. Bizirik atera ziren 19ak hiltzera zigortu zituen epaitegi frankista batek. Marinel gudari haiek borrokan erakutsitako baloreak txundituta utzi zituen Canarias gerra-ontziko agintariak.

Manuel Calderon komandantea zen haietako bat. Ez zuen etsi hiltzera zigortutako 19 marinel euskaldun haiek onik atera ziren arte. Elkarrizketa eskatu zion Francori. Esan zion konbatean horrelako balorea erakutsitako gizonak ez zutela merezi hil zitzaten. Francok indultatu egin zituen, eta libre utzi.

Calderonek izan zuen jarrera gerra zibileko pasarte hunkigarriena iruditzen zaio Arturo Pérez-Reverte idazleari, eredugarri. Hark erakutsitako errukia eta zintotasuna, duintasunaren erakusgarri. Hala idatzi zuen El Semanal astekarian 2012-01-08an.

Gerra amaitu ondoren, Calderonek harremanetan segitu zuen gizon haiekin. Babestu egin zituen errepresio-tik, lana bilatu... Matxixakoko batailan arerio izan zituen

marinel euskaldun haiek maitasun handia izan zioten Calderoni bizitza osoan. Beren seme-alaba eta bilobetako 32ren aitaponteko egin zuten.

Gizon hura Deban jaioa zen. Oporrak Hondarribian pasatzen zituen. Orion ere agertzen hasi zen. Urtero etortzen zen, Inazio Sarasuaren etxera, bisitan. Baina zerk lotzen zituen bi gizonak? Nondik nora sortu zen harreman hura?

Sarasuak gerra aurretik ezagutu zuen Calderon, soldaduskan, haren agindupean egon zen. Inazio 1936ko abuztuan Berlineko joko olinpikoetara joatekoa zen arraunean skiffean. Uztailaren 18an hasi zen gerrak zapuztu egin zion ametsa. Gerra-urteak Lasarteko Mitxelin fabriketan lanean eman zituen. Urte haietan etxeko baratzeak lur azpian ezkutatuta eduki zuen ikurrina bat: 1933an Donostiako Euzko Gaztedik antolatutako banakako batel estropadan irabazia.

Inazio Sarasua 1943an Berrobin Baldomera Bideantxiarekin ezkondu zenean, Calderon izan zuten ezkontzako aitajauna. Eta hurrengo urtean alaba Mari Carmen jaio zenean, neskatxaren aitapontekoa izan zen bataioan.

Calderon Francoren Azor yateko arduraduna izan zen. Urte haietan Orioko mutil asko joan ziren Azorrera soldadu. Euskaldunak nahi izaten zituzten. Calderonek gaizki bukatu zuen Francoren familiarekin. Azor yatean gizarte maila altuko festa asko egiten zituzten. Horrela aipatu zuen behin Calderonek. Francoren alaba Carmencitari gustatu ez, eta kendu egin zuten Azorren arduratik. Madrilgo erresidentzia batean hil zen 1979an.

Mari Carmen Sarasuak utzia da goiko argazkia. Hark esanda jakin dugu Calderonen berri. Nik Mari Carmenekin adostu nuen gerra ez dela izaten zintzoak gaiztoen aurka, beltzak txurien kontra, batzuek idatzi izan duten bezala; gerra grisa izaten dela, zuri-beltza.

Oroimenaren kutxa

eduzitegia
ANTILLA
justaldea

Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Portu
ERRETEGIA
 Santo Erreka Abuzo, 29
 943 89 44 34
 20809 AIA-ORIO

*Irakurketa luzeak onak
 Irakurketa laburrak erakutsi onak*

ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-
 fotorosanaarruti@gmail.com
 teli: 943 83 58 45

2018
 Jaunartzeak



XPRESS JARDUERAK

Xpress jarduerak Karelan.
 Abonatu kuotarekin dohainik.
 INFORMA ZAITEZ HARRERAN.

KARELA kiroldegia 943 89 44 28

ZUR EDER
 muebles tapiceria altzariak

zurdera@zureder.com
 943 13 49 21
 Poligono Ubeagan N°1, Puerta B.
 20810, Aia-Orio

AUKERA!
50%
 - ERAINOKO
 DESKONTUA
 KOLTXOJETAN

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 orduko zerbitzua

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
 iglesias@corrajesos@yahoo.es
ZOBIO ORIO

- ATEAK IRKITZEN DITUO
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDUGINTZ ALDAKETA
- KOMUNITATEGINTZAKO ZERBITZUA

Laster arte!
 JATETXEA
Galerna

Antillako Hondartza 5
 20810-Orio-Tel.:943 89 04 16



niko
 taberna

Karta - Pintxo tradizionalak
 Okindegia

Palota Kalea, 5 - 20810 Orio - Egin erreserba 943 53 61 27



PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46



KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**

lzozki naturalak Opilak

943 578 176
 Hemiko enparantzan



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
 Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
 txakorra, txarizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



MENDIZABAL
AROZTEGIA
*Nearriko arnairak
 eta egerlarak*

943 831 175 Altsieri bidexa
 645 708 491 Bati-Aia etxea
 mendizabalgia.net 20810 Aia-Orio

ZINKU

Igeltseritza orokorra
 Etxeko ezarpena mola guztiak
 tabakak, bainu gelak, igeltzua...

Andee Zinkunegui
 667 740 279

ORIOKO HERRI IKASTOLA



Joxe Mari Unanue

Bazter goibelak koloreztatuz

Duela ez asko zubi azpia kolorez eta berdintasunezko irudiez apaindua izan da. Azkenaldian, feminismoa irudikatzen duen emakumeak eta ostadarraren koloreek agurtzen gaituzte zubi azpitik pasa edo zubiko eskaileretatik igotzen garenean. Irudi, kolore eta hitz aldarrikatzaileen bitartez, herriari bizitasuna emateaz gain, gaizki pasatzen egon daitezkeen hainbat pertsoneri lagundu daitekeela frogatu dute Xaltxerek.

Keinu txikiekin min handia egin dezakegun bezala, horrelako keinu txikien bitartez uste baino gehiago lagundu dezakegu, kasu honetan, LGBT kolektiboari eta matxismoa jasaten dutenei babesa eman eta indarra transmititu dieten bezala. Horrexegatik, artea, bizikidetetasuna eta berdintasuna uztartzen dituen horrelako ekintza gehiago egin beharko genituzkeela iruditzen zait, herria bizituz, berdintasunaren alde egiteko. Izan ere, horrelako ekintza txiki eta originalak eginez begirunezko eta berdintasunezko etorkizun batera pausu handi bat eman dezakegu.

Horrelako keinu txikien bitartez uste baino gehiago lagundu dezakegu.

“Gurasoak gelan”

Idurre Azkune

Familia medikua eta pediatrian aritua

LH-4ko ikasleok ikastolara gonbidatu dugu Idurre Azkune, familia medikua eta pediatra, gure proiektuan parte hartzera. Ondorengo elkarrizketari esker bera hobeto ezagutzeko aukera izan dugu.

Zergatik aukeratu zenuen medikuntza ikasketak egitea?

Asko erakarri izan nau betidanik. Txiki-txikitatik argi izan dut medikua izan nahi nuela, jendeari laguntzea asko gustatzen zaidalako.

Non egiten duzu lan?

Osakidetzan egiten dut lan. Orain arte hainbat herritan aritu izan naiz lanean, Orioko anbulatorioan ere lan egin izan dut, baina aurtengo otsailetik aurrera Altzan izango naiz, han lortu baitut lanpostua.

Medikua izatea polita al da?

Bai, mediku izatea oso polita da, lehen esan dudan bezala jendeari lagundu egiten zaiolako. Hala ere, batzuetan nahiko gogorra da, zenbait garaitan lan karga handia izaten dugu-eta. Horrez gain, etengabe ikasten jardun

behar dugu.

Zer sentitzen duzu gaixo bat sendatzen denean?

Oso gustura sentitzen naiz, polita eta pozgarria da benetan. Gorputza bera da sendatzen dena, guk lagundu egiten diogu gorputzari sendatzen.

Zer suposatzen du mediku izateak?

Gehienbat ardura eta erantzukizuna da lan horrek suposatzen duena. Askotan, etxera iritsitakoan, gogoan izaten ditugu gaixoak eta, batzuetan, loa ere eragozten digu.

Egoera zailak bizi izan al dituzu?

Bai, asko bizi izan ditut, gehienetan larrialdietan egon izan naizenean. Urduritasuna saihesteko entrenatu egiten gara modu mekanikoan lan eginez eta protokolo batzuk jarraituz.

Zure lanean bakarrik edo taldean jarduten zara?

Berez, talde lana da. Nahiz eta kontsultan pertsona bakarra egoten den, horren atzean talde bat aritzen da lanean.

Talai Mendi: 40 urte kabalgatarekin

40 urte egin ditu Talai Mendi elkarteak Erregeen kabalgata antolatzen. Aurtengoa, 2018koa, azkena izan da. Udalak hartuko du aurrerantzean kabalgata antolatzeko erronka, baina, bitartean, kabalgataren atzean dagoen lan guztia kontatu digu Talai mendik.



TALAI MENDI



EGIGUREN ARGAZKIAK

Lana eta konplizitatea

Erregeen kabalgataren antolaketak sekretu bat baino ez du: lana. Urtean zehar banatu, egin eta lotu beharreko lan txiki asko. Kabalgata bat bukatu orduko hasten da hurrengoa: jantziak errebisatu, konpondu behar badira jostunei eman, garbitu eta gero txukun jaso —aurten, esaterako, Balea hoteleko gortina zahar batzuk aprobetxatu ditugu jantziak egiteko—; ileordeak eta bizarrak, berdin; zaldiak lortu —eskerrik asko, Pello Saizar, urte hauetan guztietan musu-truk emandako laguntzagatik—; oparien kutxak txukundu eta prestatu; goxokiak erosi —ez prezioa negoziatu gabe—; antortzak eskatu; kabalgatan parte hartzeko oharrak prestatu; Udalarari eta ikastolari baimenak eskatu, haien baliabideak eta azpiegiturak erabiltzeko; entseguak antolatu; entseguetarako eta danborradarako arduradunak lotu; sakristauari Joserren eta Mariaren arropak eskatu; materialarekin aurrera eta atzera ibili; txaranga lotu; bizartzuri ere bai; Jose eta Maria; ibilbideko laguntzaileak; kiroldegikoak; kabalgatan parte hartzen duten haurrentzako goxokiak; antolatzailentzako afaria... Hori guztia Udalarekin hitzartutako aurrekontua gainditu gabe, gastuak zorrotz kontrolatuta. Eta horretaz guztiaz gain, kabalgata eguneko lanak. Ikusgarriak, ikusten direnak, eta dena bukatutakoan, denak etxera joaten direnean, ikusten ez direnak. Guztia jasotzea eta txukun uztea.

Hori guztia eta gehiago egin behar izaten da erregeen kabalgata antolatzeko. Urte osoko lana, beraz. Baina horren guztiaren gainera, jendearekin izan beharreko harremana dago. Konplizitatea lortu beharra. Konfiantza. Musu-truk haien denbora, lana eta baliabideak emateko prest daudenak zaindu eta goxatu beharra. Hurrengo urtean berriro ere lanerako prest egoteko. Etxekoekin espaloian egon beharrean, besteek gozatu dezaten espaloitik behera ibiltzeko prest egon daitezten. Eskerrik asko bidelagun izan direnei, eta animo eta zorte on etorriko direnei.

TALAIMENDI ELKARTEA



EAJ

Ohiturak mantentzearen erronka

Errege kabalgataren inguruan dugun erronkari heldu baino lehen, Talai Mendi Elkarteari urtez urte herriko haurren ilusioa elikatu eta mantentzeko egin duen lan ikaragarria eskertu nahiko genioke. Arratsalde batean gauzatzen den errege kabalgatak lan handia du atzetik eta hori aitortu eta eskertu nahi diegu. Antolakuntzaren erreleboarekin, elkarteentzat arrotza ez den errealtate bat mahai gainean jarri da. Ez dugu soilik erreleboaren ikuspegitik gaia aztertzen, harago joan eta herriarentzat elkarte sare bizi eta osasuntsua izateak duen onura da aztertu nahi duguna. Orioko EAJren ustez, udalek elkartei babes eta laguntza eman behar diote. Bien arteko elkarlan eta elkarrizketa guneak ezinbestekoak dira herriko zerbitzu eta ekimenak bideratzeko. Udalak eta Elkarteak elkarren osagarri dira eta bakoitzaren tokia zein den argi egonda, helburu berdina izanda, elkarlana gauzatuko da. Errege Kabalgatarekin ere, herritarrekin elkarlanean bilatuko dugu irtenbidea.



Orain

Errege majoak

Galderaren erantzuna motza bezain argia da: udalak antolatzailereen papera izan behar du.

Baina erantzun horrek beste galdera bat egitera eramaten du: nola antolatu behar du Udalak Errege kabalgata? Modu askotakoak izan daitezke antolakuntzak, edo antolaketa guztia enpresa batekin kontratatzea edo elkarte batekin hitzarmen bat egitea edo bata zein bestea herritarren parte hartze dinamika batekin osatuta edo...

Udaletxearen inplikazioak neurri desberdinak izan ditzake, aktibotik pasibora doan lerroan kokatzen den puntuak emango lioke inplikazio maila.

Normalean ez gara konturatzen eta ez dugu balioan jartzen pertsona askok Udaletxetik kanpo herritarren onerako jokatzeko duten papera eta egiten duten lan eskerga. Garbi dago azken urte luze hauetan Talai Mendi elkarteak antolatu dituen, tartean Olentzero eta Mari Domingi, bezalako txukun eta goxoak izatea oso zaila izango dela.



EH Bildu

Mila esker Talai Mendiri

Hasteko eta behin, nola ez, Talai Mendi elkarteari eskerrak ematea dagokigu, 40 urte hauetan Erregeen kabalgata antolatzeko ardura bere gain hartu dutelako. Askotan ez gara konturatzen zer lan handia dagoen horrelako antolakuntzen atzean eta zenbat gauza lotu behar izaten diren: entseguak, arropak, komunikazioa, animaliak, segurtasuna, boluntarioak... Urte bukaeran Talai Mendik jakinarazi du ez duela berriz kabalgata antolatuko eta, aurrerantzean, Udalarari edota herriari tokatzen zaiola ekitaldi horren etorkizunaz erabakitzea. Gure ustez, orain arte bezala, herritarren artean sortutako ekimen bat izan beharko luke Erregeen kabalgata; Udalak lagundu eta babestua, jakina, baina herritarrek antolatua. Herrigintza gainbehera datorren garai hauetan uste dugu Udalak herritarren inplikazioa sustatu behar duela eta ez zaigu egokia iruditzen orain arte herriak bikain antolatu duen ekimen hau besterik gabe Udalaren gain geratzea, beste zerbitzu bat balitz bezala.



PSE-EE

40 urteko lan gogorra

Badira diruarekin ordaindu ezin diren lanak, eta horietako bat boluntarioena da.

Talaimendik azken 40 urteetan Erregeen kabalgata antolatu du. Boluntario talde horrek denbora eskaini dio urte-garai oso berezian Orioko herriari eta horregatik lehenbizi eskerak eman behar zaizkie.

Kabalgatako zati garrantzitsua danborrada da, eta hori Mari Carmen Oliden, Jose Mari Sarasola, Daniel Barrenetxea eta Mila Olidenek urteetan egin duten lan handiari esker izan da posible. Eskerrak eman behar zaizkio Pello Saizarri ere, urte askotan bera izan baita erregeen zaldia doan eta prestutasunez utzi dituen, horrek dakarren lan eta ardurarekin.

Lan ederra egin dute urte askotan eta orain udalari tokatzen zaiola lan eta ardura horiek bere gain hartzea; ez da erraza izango. Erabakiak hartu eta boluntario berrien laguntza bilatu beharko dugu, esan bezala, badiarelako diruarekin ordaindu ezin diren lanak.

azku
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86

carroceriasazkue@hotmail.com

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



ORIA
hertz klinika

Orio Hertz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martian.
Prebentzioa edinebestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor ditzakeen arazoak.

Arrantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

Katu Horia
GIBELDARITZA KLINIKA

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIKAK
688 89 11 29

www.katuhoria.com

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
bentona, akupuntura,
eskuko terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Arizaga kalea, 11 behea



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

Azkue



Tf: 943 130 438

Azkue

Ille apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

URAITZ
Lurrindegia
jantzi sagarrak

Endak 3 Tfax: 943 83 18 97

LUXARBE
igeltsaritza

IgELTSeritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfhoa: 943 83 59 00



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX: 943 571 190
lavenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

kutixi
kafetegia
GOSARI GOKOAK

Arizaga 9, 20810 Orio
Tf: 943 13 13 17

PERTSIANAK
AKO MANZ



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Gizartea

Zaharren Babeslekuko presidente izaten jarraituko du Txomin Iribarrek



Urtarrilaren 10ean izan zuten Zaharren Babeslekuko bazkideek urteko batzarra. Goraino bete zen Kultur Etxeko areto nagusia, eta hainbat gai izan zituzten mintzagai; besteak beste, 2017ko urteko batzarreko akta onartzea, ekitaldi ekonomikoaren itxiera, jardueren memoria eta zuzendaritza taldeko kideak berritzea.

Diapositiben proiektioarekin eman zioten hasiera batzarrari. Zaharren Babeslekuak 2017an izan duen zuzendaritza taldea oholtza gainera igo zen ondoren, eta esker hitzak izan zituzten Orioko Udalarentzat, alkatearentzat eta Angel del Hoyo gizarte ongizateko buruarentzat; Zaharren Babeslekuari iaz emandako diru-laguntzarengatik, mantendu duten harreman zuzenagatik eta *beso-zabalik hartu izanagatik*. Nekane Arrizabalaga Aiako alkatea eta Jabier Zabaleta, Imanol Urkizu, Santi Zaldua eta Maria Luisa Urbieta udaleko langileak ere aipatu zituzten. 2017ko ur-

teko batzarreko aktari onarpena eman ostean, Jose Angel Zalduak hartu zuen hitza. 2017an Zaharren Babeslekuak antolatutako askotariko ekintzak ekarri zituen gogora. Zaharren Babeslekuaren inguruko datuak ere eman zituzten: egun, 916 bazkide ditu erretiratuen elkarteak.

Zuzendaritza taldeko diruzainak 2017ko diru sarrera eta gastuen xehetasunak eman zizkien bazkideei, eta idazkariak urte osoko jarduerak ekarri zituen gogora. Beste zenbaiten artean, asteazkeneko jokatzan duten bingoa, erretiratuen eguna, Galiziara bidaia eta mus txapelketa aipatu zituen. Bazkideentzat eskusiboki antolatzen dituzte irteerak, baina plazak hutsik geratzen direnean, izena emateko aukera edonori zabaltzen dietela azpimarratu zuten.

Zuzendaritza taldea

10 urte bete dira Txomin Iribar Zaharren Babeslekuko presidente izendatu

zutenetik, eta 15 jardueretan parte hartzen ari denetik. Nekatuta dagoela aitortu zuen Iribarrek, baina batzar orokorrean ez zen presidente postua betetzeko boluntariorik aurkeztu; eta beste bi urtez jarraituko du. Nolanahi ere, datozen urteetan bere postua hautatzeko zerbait pentsatu beharko luketela adierazi zuen presidentek: *Bi urterako beteko dut, baina boluntariorik ez badago, zozketa egin beharko dugu presidentea hautatu behar dugunean*.

Maria Jesus Ibarretak, aldiz, zuzendaritza taldea utziko duela jakinarazi zuten. Txaloz eskertu zuten bazkideek Ibarretak orain arte egindako lana eta elkartearen izandako inplikazioa. Antonita Oliden aurkeztu da boluntario, eta harek ordeztuko du hemendik aurrera zuzendaritza taldean Ibarretaren lana. Bide batez, Zaharren Babeslekuak bazkideei gogorarazi nahi die urtarrilaren 22tik 26ra bitartean kobratuko dutela 2018ko kuota. Arratsaldean ordaindu beharko da, 16:00etatik 18:00etara, Babeslekuan bertan.

Mus txapelketa otsailean

Urtero bezala, mus txapelketa antolatu du babeslekuak. Otsailaren 5ean 16:00etatik aurrera jokatu da lau erregetaraa. Erretiratuen elkarteak jakinarazitakoaren arabera, zozketa bidez erabakiko dira partidak, eta kanporaketa izango da erabiliiko duten sistema. Hala, partida galtzen dutenak kaleratu eta irabazleek jarraitzeko aukera izango dute.

Zaharren Babeslekuko tabernan eman daiteke izena, urtarrilaren 20tik otsailaren 1a arte. Parte-hartzaile guztiekien hamaietakoa izango da otsailaren 10ean, eta sariak banatuko dituzte.

AGENDA

Orio

Emanaldiak

- Urtarrilaren 26an, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia, 17:30ean Karela kiroldegian.
- Otsailaren 8an, Lore Erriondoren hitzaldia Salatxo aretoan, Zaraguetak antolatuta.
- Otsailaren 24an, Danbolin musika eskolaren dantza emanaldia Karelán, 17:00etan.

Inauteriak

- Otsailaren 10ean, Inauteriak.

Etxeluze Gaztetxea

- Otsailaren 4an, mikroantzerkiak, 19:00etan. Sarrera 6€.
- Otsailaren 8an, erraustegiaren inguruko hitzaldia, 19:00etan.
- Otsailaren 10ean, inauterietako poteo musikatua, 18:30etik aurrera.
- Otsailaren 24an, Xaltxa Badago jaialdia.

AZOKA

Lan eskaera

• Lan bila nabil, etxe barnean edo kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten...
Gazteleraz, arabieraz eta euskaraz zerbait dakit.
Tf: 612488307

Salgai

• Euskal Artzain eta Border Colie arrazako txakurkume mestizoak

salgai. Tf: 634410993
• 70 m2-ko pisua salgai Orion, Eusko Gudari kalean. Bereizirik, 15 m2-ko ganbara. Pisuak 2 gela, egongela eta sukaldea ditu. Erdigunean kokatua, eguzkitsua, 2 balkoi -E. Gudari kalera eta Donibane kalera-
Horma-armairua. Igogailurik ez dago. Berehala bizitzen jartzeko dago.
150.000€ Tf: 639987645

Kirola

- Otsailaren 4ean, Zaraguetako kros txikia.
- Martxoaren 4ean, Orioko Mendi Lasterketa. Izen-ematea kirolprobak.com webgunean.

Aia

Erromeriak

- Urtarrilaren 28an Laja eta Larrañaga trikitilariak Aiako Aristerrazuko erromerian, 18:30etik 21:30tara.

Podologoak

- Urtarrilaren 27an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.
- Otsailaren 24an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Aiako Mendi Lasterketa

- Otsailaren 25ean, Aiako Mendi Lasterketa. Izen-ematea otsailaren 23a baino lehenago kirolprobak.com webgunean.

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	4:48 eta 17:15	10:57 eta 23:13	☉
02	5:34 eta 18:00	11:43 eta 23:58	☉
03	6:18 eta 18:44	12:28 eta ____	☉
04	7:03 eta 19:28	0:42 eta 13:12	☾
05	7:47 eta 20:13	1:27 eta 13:58	☾
06	8:34 eta 21:02	2:14 eta 14:45	☾
07	9:27 eta 21:59	3:04 eta 15:37	☾
08	10:30 eta 23:08	4:03 eta 16:39	☾
09	11:46 eta ____	5:14 eta 17:49	☾
10	0:26 eta 13:02	6:30 eta 18:59	☾
11	1:33 eta 14:04	7:37 eta 19:57	☾
12	2:26 eta 14:51	8:29 eta 20:44	☾
13	3:08 eta 15:30	9:12 eta 21:24	☾
14	3:45 eta 16:06	9:49 eta 22:00	☾
15	4:19 eta 16:38	10:24 eta 22:34	☾
16	4:51 eta 17:10	10:57 eta 23:07	☾
17	5:23 eta 17:41	11:30 eta 23:40	☾
18	5:55 eta 18:13	12:04 eta ____	☾
19	6:27 eta 18:46	0:14 eta 12:38	☾
20	7:03 eta 19:23	0:50 eta 13:16	☾
21	7:42 eta 20:05	1:30 eta 13:58	☾
22	8:29 eta 20:58	2:16 eta 14:47	☾
23	9:29 eta 22:05	3:13 eta 15:49	☾
24	10:47 eta 23:30	4:24 eta 17:04	☾
25	12:16 eta ____	5:47 eta 18:24	☾
26	0:54 eta 13:35	7:07 eta 19:36	☾
27	2:03 eta 14:38	8:13 eta 20:36	☾
28	3:00 eta 15:30	9:09 eta 21:27	☾

ZAINTZAKO BOTIKAK

- OTSAILA:
- 1ean, Esparza.
 - 2an, Lasa.
 - 3an eta 4an, Larrañaga.
 - 5ean, Zulaika.
 - 6an, Lasa.
 - 7an, Esparza.
 - 8an, Etxeberria.
 - 9an, Larrañaga.
 - 10ean eta 11n, Zulaika.
 - 12an, Lasa.
 - 13an, Esparza.
 - 14an, Lasa.
 - 15ean, Larrañaga.
 - 16an, Lasa.
 - 17an eta 18an, Etxeberria.
 - 19an, Lasa.
 - 20an, Izpizua.
 - 21ean, Larrañaga.
 - 22an eta 23an, Lasa.
 - 24an eta 25ean, Gallo.
 - 26an, Iriarte.
 - 27an, Lasa.
 - 28an, Iturria.
- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





Orion bizi nahi?

Kooperatiba erregimenean babestutako 48 etxebizitza

ORION BABES OFIZIALEKO ETXE BAT EROSI NAHI BADUZU, ORAINTXE DUZU AUKERA, ETA ALOKAIKIRUAN BIZI BAZARA HAUXE DUZU OKASIOA JAUZI BAT EMAN ETA ETXEBIZITZA BERRIA EROSTEKO.

BALDINTZAK

- a) Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea
- b) Adinez nagusia izatea, edo nortasun juridiko propioa izatea
- c) BOE (Babes Ofizialeko Etxebizitza) bat eskuratu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak eskatzen dituen baldintzak betetzea.

INFORMAZIOA ETA BALDINTZAK

1. Etxebizitzak 2020an ematea aurreikusten da

2. Etxebizitzen ezaugarriak:

- 2,3 edo 4 logelako etxebizitzak, garaje eta trastelekuarekin
- 2 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuarekin, 135.000 €-tik aurrera (BEZ gabe)
- 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuarekin, 155.000 €-tik aurrera (BEZ gabe)

3. Etxebizitza bakoitzaren prezioa kontratu bidez itxiko da, gainkosturik gabe.

4. Bazkide bakoitzak soilik bere etxebizitzaren kostua ordaindu beharko luke. Gainkosturik gabe.

Babes ofizialeko etxe bat izateko Eusko Jaurlaritzaren baldintzak betetzen badituzu, Orion etxe bat izan zenezake. KOOPERATIBA ERREGIMENEAN babestutako etxe bat eskaintzen dizugu, zerrendarik gabe, zozketarik gabe. Eta gainera, zure etxebizitza **Orio erdian**. Orain duzu aukera Orion arrazoizko prezio batean bizitzeko. Jar zaituz gurekin harremanetan eta denataz informatuko zaitugu.

orionbizicooperativa@gmail.com

MATRIKULAZIOA:
urtarrilaren
29tik
otsailaren
9ra

ORIO

ORIOKO
HERRI
IKASTOLA

gara

MATRIKULAZIO EPEA: Urtarrilaren **29**tik otsailaren **9**ra.

BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-13:30 / 14:30-18:30 Tel.: 943 834 704 / 943 894 360

e-posta: orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

